DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Udaltzaingoa / Guar

Morlans biribilgunea, 1 - 20009 Donostia / San Sebastián
Tel. 943481315 | www.donostia.eus

Akordio proposamena
TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK:
ONARTUA
Propuesta de acuerdo a
JUNTA DE GOBIERNO LOCAL:
APROBADA

TGB Bilkura
Sesión JGL
2026/11/17

Zinegotzi idazkaria / Concejal-a
Olatz Yarza Garagorri

*2026/055 Kontratazio-espedientea*

# DONOSTIAKO UDALTZAINGOARENTZAKO KONTROL-GAILU ELEKTRONIKOEN (KGE) EKIPAMENDU OSOA HORNITZEKO KONTRATUA

## - BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA -

**0. AURKIBIDEA**

I. ATALA. HORNIDURAREN DEFINIZIOA

I.1. HORNIDURAREN XEDEA
I.2. DESKRIBAPEN OROKORRA ETA HORNIDURAREN IRISMENA
I.3. ARAUDI ETA ESTANDAR APLIKAGARRIAK

II. ATALA. HORNITU BEHARREKO ONDASUNEN BETEKIZUNAK

II.1. PRODUKTUEN BETEKIZUNAK

II.1.A. KGE-AREN BETEKIZUNAK
- OINARRIZKO EZAUGARRIAK
- ARMAZOIA
- EZAUGARRI FISIKO ETA FUNTZIONALAK
- EZAUGARRI BALISTIKOAK
- PUNTERIAKO ETA ARGIZTAPEN TAKTIKOKO SISTEMA
- MUNIZIOA KARGATZEKO SISTEMA
- TIRO EGITEKO SISTEMA
- BATERIAREN KOKALEKUA
- POTENTZIA-MODULUA
- KONTROLERAKO ETA BISTARATZEKO SISTEMA ELEKTRONIKOA
- SEGURTASUN-ELEMENTUAK
- AKABERA ETA ERGONOMIA
- EZAUGARRI OPERATIBOAK

II.1.C. KARTUTXO ANITZEKO KARGAGAILUAREN BETEKIZUNAK
- EZAUGARRI FISIKOAK
- EZAUGARRI FUNTZIONALAK
- KARTUTXO ANITZEKO KARGAGAILUAREN OSAERA
- AKABERA

II.1.D. BATERIARENBETEKIZUNAK
- EZAUGARRI FISIKO ETA FUNTZIONALAK
- BATERIAREN OSAERA
- BATERIAREN EZAUGARRI OPERATIBOAK

II.1.E. BATERIA ETA DATUAK KARGATZEKO SISTEMAREN BETEKIZUNAK
- EZAUGARRI FISIKOAK
- EZAUGARRI ELEKTRIKOAK
- DATUEN TRANSMISIOAREN EZAUGARRIAK
- SISTEMAREN OSAERA
- BATERIA KARGATZEKO SISTEMA
- DATUAK DESKARGATZEKO ETA KUDEATZEKO SISTEMA
- EZAUGARRI OPERATIBOAK

II.1.F. ZORROAREN BETEKIZUNAK
- EZAUGARRI FISIKOAK
- EZAUGARRI OPERATIBOAK

II.1.G. GORPUTZEKO KAMERAREN BETEKIZUNAK
- EZAUGARRI FISIKOAK
- BIDEOAREN EZAUGARRIAK
- AUDIOAREN EZAUGARRIAK
- POSIZIONAMENDU-SISTEMA
- GRABAKETAREN EZAUGARRIAK
- EZAUGARRI FUNTZIONALAK
- GORPUTZEKO KAMERAREN OSAERA
- AKABERA ETA ERGONOMIA

- EZAUGARRI OPERATIBOAK

II.1.H. GORPUTZEKO KAMERAREN (GK) EUSKARRIAREN BETEKIZUNAK

II.1. J. DATUAK ETA GERTAKARIAK KUDEATZEKO SISTEMAREN BETEKIZUNAK

- APLIKAZIO INFORMATIKOA
- HODEIKO DATU-BASEA

II.1. M. BETEKIZUNAK BERMEA LUZATZEA

II.2. MANTENTZEKO ERRAZTASUNA
II.3. AGIRI TEKNIKOAK
II.4. MARKAK ETA IDENTIFIKAZIOA
II.5. BERMEA

III. ATALA. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

IV. KONFIDENTZIALTASUNA

V. SEGURTASUN ESKEMA NAZIONALA

ERANSKINA I. INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA. DATU-TRATAMENDURAKO ENKARGUA
ERANSKINA II. KONFIDENTZIALTASUNA

## I. ATALA. HORNIDURAREN DEFINIZIOA

### I.1. HORNIDURAREN XEDEA

Preskripzio teknikoen agiri honek (aurrerantzean, PTA) zehazten du zein betekizun bete behar diren kontrol-gailu elektronikoak (aurrerantzean, KGE), munizio-kargagailuak, polizien gorputzeko kamera (bideoa, audioa eta posizionamendua), poliziaren ebidentziak kudeatzeko sistema informatikoa, eta ondasun horientzako zuzkidura osagarria –bateriak eta osagaiak barne– hornitzean.

Hornitu beharreko ondasunek sistema bakar bat osatzen dute (era integratu eta bateratuan dabilen sistema baten elementuak).

Agiri honen ondoreetarako, KGE ekipamendu osoa esango zaio apartatu honen lehen paragrafoko ondasunaren multzoari.

### I.2. DESKRIBAPEN OROKORRA ETA HORNIDURAREN IRISMENA

KGEa arma ez-hilgarri bat da, pertsonak berehala eta aldi baterako ezgauza uzten dituena, tentsio handiko baina ampere gutxiko bulkada elektrikoen bitartez ezgaitasun neuromuskularra eragiten baitu.

Tentsioa handia da, arroparen eta azalaren erresistentzia gainditu eta giharretara heltzeko, baina, ampere gutxi darabiltzanez, gorputzetik doan korronte-kantitatea oso txikia da. Dena den, burmuinak giharretara bidaltzen dituen seinale elektrikoetan interferentziak sortzeko bestekoa da, eta, hortaz, subjektua aldi baterako ezinduta uzten du. Helburua subjektua geldiaraztea da, baina lesio larriak jasateko arriskua ahal beste txikituta.

KGE ekipamendu osoak erabiltzea polizia-kidegoak modernizatzeko prozesuan aurrera egitea da; eta eragiketa-eredua eraldatzea, berrikuntza teknologikoan eta gardentasunean oinarritutako segurtasunaren kudeaketa bilatze aldera. Zuzkidura honek suzko armak baino kalte txikiagoak egiten dituen aukera bat eskaintzen du, eta, gainera, KGEa grabaketa automatikoko sistemekin lotuko denez, agenteentzako zein herritarrentzako segurtasun juridiko gorena bermatzen du, polizia eraginkorragoa izan dadin, berme handiagoak eman ditzan eta garaion exijentzietara egokitu dadin.

Hona hemen agiri honen xede diren ondasunen eta haien kopuruen zerrenda:

| Kodea | Deskribapena | Kopurua |
|---|---|---|
| A | Kontrol-gailu elektronikoa (KGE) | 4 |
| C1 | ZERBITZURAKO kartutxo anitzeko kargagailua (Live Duty) | 4 |
| D | KGEaren bateria | 4 |
| E2 | KGEaren bateria eta datuak kargatzeko sistema - anizkoitza (6 badia) | 1 |
| F1 | Agente eskuinentzako zorroa | 4 |
| G | Gorputzeko kamera (GK) | 4 |
| H | GKren euskarria | 4 |
| J | Datuak eta gertakariak kudeatzeko sistema informatikoaren lizentzia | 4 |
| M1 | Bermea 5 urtera zabaltzea - KGE | 4 |
| M2 | Bermea 5 urtera zabaltzea - KGEaren bateria | 4 |
| M3 | Bermea 5 urtera zabaltzea - KGEaren bateria eta datuak | 1 |
| M4 | Bermea 3 urtera zabaltzea - Gorputzeko kamera (GK) | 4 |
| | | |

## I.3. ARAUDI ETA ESTANDAR APLIKAGARRIAK

Hona hemen PTA hau betetzeko gutxienez erabili beharreko erreferentziazko lege-dokumentuak eta estandar teknikoak:

- 24/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, Defentsaren eta Segurtasunaren Eremuetako Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
- 137/1993 Errege Dekretua, urtarrilaren 29koa, Armen Erregelamendua onesten duena.
- 24/2024 Dekretua, martxoaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoen armen eta beste baliabide tekniko batzuen erabilera eta motak arautzen dituena.
- 4/1997 Lege Organikoa, abuztuaren 4koa, Segurtasun Indar eta Kidegoek leku publikoetan bideokamerak erabiltzea arautzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; eta 2016/679 Erregelamendua (EB).
- 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa.
- 14/2019 Errege Lege Dekretua, urriaren 31koa, zeinaz presako neurriak hartzen baitira segurtasun publikoko arrazoiengatik administrazio digitalaren, sektore publikoko kontratazioaren eta telekomunikazioen arloan; eta ebidentzia digitalak kudeatzeko informazio-sistemak, zerbitzariak eta datu-baseak Europar Batasuneko lurraldean egoteko betebeharra ezartzen baita.
- 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena.
- UNE-IEC 60479-1:2022 araua (alderdi orokorrak) eta UNE-IEC 60479-2:2022 (zehaztasunak) korronteak gizakiengan eta ganaduarengan duen eraginei buruzkoak.
- UNE-EN ISO 9001 2015 araua, kalitatea kudeatzeko sistemei buruzkoa.
- UNE-EN ISO/IEC 27001:2023 araua, informazioaren segurtasunari, zibersegurtasunari eta pribatutasunaren babesari buruzkoa.
- UNE-EN 60529:2018 araua, inguratzaileek emandako babes-mailari buruzkoa. Zehazki, ura eta solidoak produktu elektrikoetan sartzearen kontrako babesaren IP67 mailara heldu beharko da.
- CE marka
- Adostasun-adierazpena, gailuak honako hauek betetzen dituela egiaztatzen duena:

2014/53/EB (RED) Zuzentaraua, Irrati Ekipamenduak Merkaturatzeari buruzkoa.

2014/30/UE (EMC) Zuzentaraua: Bateragarritasun elektromagnetikoari buruzkoa.

2011/65/EB (RoHS) Zuzentaraua, gailu elektriko eta elektronikoetako substantzia arriskutsu jakin batzuk erabiltzeko murrizketei buruzkoa.

## II. ATALA. HORNITU BEHARREKO ONDASUNEN BETEKIZUNAK

### II.1. PRODUKTUEN BETEKIZUNAK

PTA hau errazago erabiltzeko, betekizunak (RQ) letra batekin kodifikatu dira, hurrenkera alfabetikoan, eta zenbaki batekin, sekuentzia bati jarraituz. Letra hornitu beharreko ondasunarekin lotuta egongo da, eta zenbakiak ondasun horrentzako betekizunen sekuentzia ezarriko du. Ondasun jakin bati lotu gabeko betekizun orokorrek Z letra izango dute.

II.1.A KGEaren BETEKIZUNAK

OINARRIZKO EZAUGARRIAK

**RQ-A01:** KGEa intentsitate txikiko bulkada elektriko kontrolatuen bidez pertsona baten konexio neuromuskularrak (NM) eragozteko diseinatutako gailu bat da. Katua sakatzen den bakoitzean, KGEak **zunda** izeneko jaurtigailu bat botako du, eta hura gailuari lotuta gelditukо da, hari eroale baten bitartez, gailuak berak daukan energia-iturri autonomo bati konektatuta egon dadin. Zunda horiek arpoi txiki baten itxurako mekanismo bat daukate buruan, neutralizatu beharreko subjektuaren gorputzari atxikita gelditzeko. Sistemak bi zundak gutxienez itua jo dutela detektatzen duenean, zirkuitu elektrikoa ixten du eta hilgarria ez den korronte elektriko kantitate bat igortzen du, subjektua zenbait segundoz ezgauza uzten duena.

**RQ-A02:** Karga elektrikoa bulkadatan igortzen da, eta gai da burmuinak giharretara bidaltzen dituen seinaleetan interferentziak eragiteko; horrenbestez, denbora tarte batez mugitzea galarazten du. Ezgaitasun neuromuskularra (ENM) erantzun fisiologiko saihetsezina da, bakoitzaren min-atalasearekin zerikusirik ez duena, eta, horri esker, egoera eraginkortasun handiagoz baretu daiteke.

**RQ-A03:** Hiltzeko ahalik eta ahalmen txikiena izateak arma honen oinarrizko ezaugarri bat izan behar du, baita bihotzeko patologiak dituztenekin eta taupada-markagailua daramatenekin ere.

ARMAZOIA

**RQ-A04:** Armaren egitura erresistentzia handiko material polimeriko arin batekoa izango da, L itxurakoa (**armazoi** izenekoa), eta honako hauek edukitzeko gaitasuna beharko du: punteria- eta argiztapen-sistema, munizioa kargatzeko sistema (**kartutxo anitzeko kargagailua** izenekoa), bateria erauzgarria, potentzia-modulua, barne-memoria eta kontrol-sistema elektronikoa (KSE), bistaratze- eta segurtasun-sistemak, eta armaren gainerako elementuak.

**RQ-A05:** Armazoiak katua babesteko uztai bat izango du, eta armaren aginteetarako eta adierazpen-elementuentzako leihoak ere bai.

EZAUGARRI FISIKOAK ETA FUNTZIONALAK

| TAMAINA (mm) | | |
|---|---|---|
| **RQ-A06:** | Luzera, kartutxo anitzeko kargagailurik eta bateriarik gabe | < 210 |
| **RQ-A07:** | Luzera, kartutxo anitzeko kargagailua eta bateria jarrita | < 240 |
| **RQ-A08:** | Altuera, kartutxo anitzeko kargagailurik eta bateriarik gabe | < 100 |
| **RQ-A09:** | Altuera, kartutxo anitzeko kargagailua eta bateria jarrita | < 130 |
| **RQ-A10:** | Zabalera | < 50 |

| PISUA (g) | | |
|---|---|---|
| **RQ-A11:** | Pisua, kartutxo anitzeko kargagailurik eta bateriarik gabe | ≤ 300 |

| | | |
|---|---|---|
| **RQ-A12:** | Pisua, guztira, kartutxo anitzeko kargagailua eta bateria jarrita | < 800 |

| IRAUNKORTASUNA ETA ERRESISTENTZIA | | |
|---|---|---|
| **RQ-A13:** | Gailua erabiltzeko bizi erabilgarria (urteak) | ≥ 5 |
| **RQ-A14:** | Erortzeari erresistentzia, entsegu probetan (m) | ≥ 1,3 |
| **RQ-A15:** | Katuaren erresistentzia (N) | 10 ÷ 30 |
| **RQ-A16:** | Hautsa eta ura sartzearen kontrako erresistentzia (UNE-EN 6052 arauko maila) | IP67 |

| ERABILTZEKO GIROKO BALDINTZAK | | |
|---|---|---|
| **RQ-A17:** | Erabiltzeko giroko tenperatura (°C) | -20 ÷ 50 |
| **RQ-A18:** | Hezetasun erlatiboa kondentsaziorik gabe (%) | > 90 |

| EZGAITZEKO KORRONTEAREN EZAUGARRI ELEKTRIKOAK | | |
|---|---|---|
| **RQ-A19:** | Bulkaden errepikapenen frekuentzia | 20 ÷ 45 |
| **RQ-A20:** | Bulkada elektrikoaren iraupena (µ), 600 Ω-rekin. | 40 ÷ 75 |
| **RQ-A21:** | Bulkada bakoitzaren energia (mJ), 600 Ω-rekin. | 30 ÷ 90 |
| **RQ-A22:** | Irteerako gehieneko tentsioa (kV), 600 Ω-rekin | 1,0 |
| **RQ-A23:** | Korrontearen gehieneko intentsitatea (mA) segundoko 22 bulkadarekin, eta 300-2000 Ω artean. | 2.1. |

EZAUGARRI BALISTIKOAK

**RQ-A24:** KGEa munizio taktikoarekin erabiltzeko prest egongo da, eta bi tiro egin beharko dira, gutxienez, korronte elektrikoa igortzeko. Hamar tiro ere egin ahalko dira segidan, eta armak gai izan beharko du sortutako zirkuitu elektrikoaren eraginkortasuna hoberen bermatzen duten bi inpaktuak hautatzeko. Munizioa depositu erauzgarri batean gordeko da (**kartutxo anitzeko kargagailua**). Kartutxo anitzeko kargagailuaren munizioa gordetzen duen kartutxoa daraman hutsune edo ganbera finkoetako bakoitzari, aurrerantzean, **badia** esango diogu.

**RQ-A25:** KGEak prestakuntzarako kartutxo anitzeko kargagailu espezifiko batez elikatutako munizio taktikoa ere erabili ahalko du. Zerbitzurakoarenaren antzera funtzionatuko du.

**RQ-A26:** KGEa entrenamendurako HALT motako munizioarekin (Hook and Loop Training) aritzeko prest egongo da. Munizio horrek belkrozko sistema bat dauka subjektuari katigatzeko, eta, hartara, tiroaren zehaztasuna praktikatzeko, baita kalterik eta eragin elektrikorik sortu gabe armaren funtzionamendua probatzeko ere.

**RQ-A27:** KGEa entrenatzeko munizio inertearekin aritzeko prest egon beharko du. Munizio horrek ez du benetako jaurtigairik izango, eta gailua kargatzea eta manipulatzea entrenatzeko diseinatuta egongo da.

**RQ-A28:** Armaren fabrikatzaileak armaren bizi erabilgarrian munizio bateragarria eta kartutxo anitzeko kargagailuena egongo dela bermatuko du, bai munizio taktikoa, bai entrenamendurakoa.

| EZAUGARRI BALISTIKOAK, MUNIZIO TAKTIKOAREKIN |
|---|

| | | |
|---|---|---|
| **RQ-A29:** | Munizio-gaitasuna (kartutxo anitzeko kargagailu bakoitzeko aleak) | 10 |
| **RQ-A30:** | Zunden edo jaurtigaien irismena (m) | ≥ 13 |

PUNTERIAKO ETA ARGIZTAPEN TAKTIKOKO SISTEMA

**RQ-A31:** KGEak bi punteria-sistema izango ditu: sistema klasikoa (altxa eta mira) eta laser-erakusle bidezko sistema.

**RQ-A32:** Punteria-sistema klasikoa karkasaren goiko aldean egongo da, eta altxa eta mira izango ditu. Altxa koska edo profil finko bat izango da, gailuaren atzealdean kokatua; mira, aldiz, aurreko aldean kokatutako profil finko bat. Sistema kartutxo anitzeko kargagailuaren erdiko badian edo ganberan dagoen zundaren ibilbide idealarekin lerrokatuta egongo da.

**RQ-A33:** Laser-erakuslearen bidezko punteria-sistemak 3R klaseko edo hobeagoko laser igorgailu bat izango du, hori ere kargagailuaren erdiko badian edo ganberan dagoen zundaren ibilbide idealarekin lerrokatua.

**RQ-A34:** KGEak intentsitate handiko LED argi bat izango du. Jarraian zehaztu da zein argi-fluxu igortzeko gai izan beharko duen.

| ARGIAREN EZAUGARRIAK | | |
|---|---|---|
| **RQ-A35:** | Eragiketetarako modu jarraitua (lm) | ≥ 200 |
| **RQ-A36:** | Alertarako frekuentzia handiko modu keinukaria (lm) | ≥ 1000 |

MUNIZIOA KARGATZEKO SISTEMA

Gailua kargatutzat joko da jaurtigaiak barruan dituenean. Munizioa kargatzeko sistema KGEaren ahoak eta kartutxo anitzeko kargagailu erauzgarriak osatzen dute. KGEa kargatuta egon dadin, lehenik eta behin kartutxo anitzeko kargagailua munizio-kartutxoekin bete behar da, eta, gero, kartutxo anitzeko kargagailua KGEaren ahoan sartu beharra dago.

PTA honen ondoreetarako, KGEari dagokion hornitu beharreko «A» objektua, apartatu honetan landutakoa, kartutxo anitzeko kargagailurik gabea da; izan ere, azken horren betekizunak II.1.C. apartatuan jorratuko dira.

**RQ-A37:** Kartutxo anitzeko kargagailua eskuz beteko da munizio-kartutxoekin, eta eskuz aterako, inongo tresnaren beharrik gabe.

**RQ-A38:** KGEak aldi berean eta karga-aldi bakar batez bere kartutxo guztiak beteko ditu, kartutxo anitzeko kargagailua gailuaren ahoan sartze hutsarekin (aurretik hura bete ondoren).

**RQ-A39:** Kartutxo anitzeko kargagailua gailuaren ahoan eskuz sartuko da, eta eskuz aterako, inongo tresnaren beharrik gabe.

**RQ-A40:** KGEak kartutxo anitzeko kargagailuari eusteko eta hura kanporatzeko mekanismo bat edukiko du, erabiltzailearentzat eskura.

**RQ-A41:** Kargatu edo KGEaren ahoan sartu ondoren, kartutxo anitzeko kargagailua tiro egiteko posizioan egongo da, eta kartutxo guztiek kontaktu elektrikoa egingo dute KGEaren ahoaren oinarriko pin edo konektoreen matrizearekin. Gainera, kartutxo anitzeko kargagailuak konexio elektrikoko interfaze bat izango du (bitarteko kuboa ere izenekoa) KGEarekin kontaktua egingo duena, sistema adimendunaren kudeaketa ahalbidetzeko.

TIRO EGITEKO SISTEMA

**RQ-A42:** Tiro egiteko katuak tiro egiteko sistemari eragiteko sakagailu elektrikoari egingo dio.

**RQ-A43:** Tiro egiteko azpisistema elektrikoa KGEaren armazoi barruan egongo da. Kontrol-sistema elektronikoak energia gutxiko bulkada elektriko bat bidaliko dio kartutxoaren eragingailu espezifikoari.

**RQ-A44:** Arman kargatutako munizioaren gaitasuna RQ A29 betekizunean jasotakoa izango da. KGEaren ahoaren oinarrian, konektore elektrikoak eta kartutxoak jaurtitzekoak egongo dira. Kartutxoak bata bestearen atzetik aktibatuko dira: tiro bakoitzeko, bat.

**RQ-A45:** Jaurtitzeko sistema munizioaren kartutxoan egongo da. Kanoi-hodi bat izango da; eta haren ganbera zorroaren atzealdea izango da, eta arima, aldiz, zorroaren aurrealdea.

BATERIAREN KOKALEKUA

PTA honen ondoreetarako, KGEari dagokion hornitu beharreko «A» objektua, apartatu honetan landutakoa, bateriarik gabea da (horniduretako «D» ondasuna); izan ere, azken horren betekizunak II.1.D. apartatuan jorratuko dira.

**RQ-A46:** Bateria elektrikoa KGEaren heldulekuan egongo da, eta han egongo dira bateria sartzeko, eusteko eta kanporatzeko sistema; elikatze-borneak; eta datuak komunikatzeko portua ere bai.

POTENTZIA-MODULUA

**RQ-A47:** KGEaren barruan tentsio handiko potentzia-modulu bat egongo da, bildutako energia frekuentzia handiko bulkada elektriko bilakatuko dituena, ezgaitze neuromuskularra lortu ahal izateko.

KONTROLERAKO ETA BISTARATZEKO SISTEMA ELEKTRONIKOA

Gailuak berau kontrolatzeko sistema elektroniko bat (aurrerantzean, **KSE**) izango du, sistemaren eraginkortasunaren eta segurtasunaren onerako. KSEaren eginkizun nagusiak honako hauek dira: sistemaren elementuak batera kudeatzea, tiroa hasteko seinale elektrikoa igortzea (ikus RQ A43), ziklo elektrikoa kontrolatzea eta optimizatzea, gailua denbora errealean monitorizatzea eta haren diagnosia egitea, eragiketako gertakarien datuak erregistratzea eta integratzea, KGEaren bistaratzeko pantaila eta argizko/hotsezko seinaleak kudeatzea, eta abar.

**RQ-A48:** Sistemak memoria elektroniko bat izango du, memoria elektroniko nagusiak eta datuak transferitzeko memoria elektronikoak osatua. Lehenbizikoa KGEaren armazoiaren barruan egongo da, eta bigarrena, aldiz, baterian (horniduraren «D» ondasuna, ikus II.1.D apartatua).

**RQ-A49:** KSEak bateriarekin, kartutxo anitzeko kargagailuarekin eta munizioaren kartutxoekin komunikatzeko eta horik kontrolatzeko konexio elektronikoak izango ditu . Gertakariak grabatzeko seinalea gorputzeko kamerari bidaliko zaio (horniduraren «G» ondasuna), haririk gabe, irrati-frekuentziaren bidez.

**RQ-A50:** KSEak arma erabiltzen den gertakarien erregistro bat sortuko du, eta automatikoki grabatuko ditu KGEaren barneko memorian; gainera, informazio hori bateriaren memorian kopiatuta utziko du (KGEaren armazoian sartuta badago), datuak bi memorietan egon daitezen, segurtasunezko bikoizketa modura. Poliziaren gertakarien erregistroak bateria erauzgarrian kokatutako datuak transferitzeko memoria elektronikotik deskargatuko dira, hura elektrizitatez kargatzeko portuan jartzen denean.

**RQ-A51:** KSEak sistemaren egoera orokorra bistaratzeko pantaila bat kudeatuko du, eta hark, gutxienez, bateriaren karga-egoera, eskuragarri dauden kartutxo-kopurua eta deskarga bakoitzaren

iraupen zehatza ikusteko pantaila bat kudeatuko du. Gainera, erabiltzaileak gailuaren egoera eta zer kartutxo mota kargatuta dauden azkar ulertzeko moduko bistaratze-koloreen kode bat erabiliko du.

**RQ-A52:** Horrez gain, KGEan kokatutako argizko adierazleen eta hotsezko jakinarazpenen sistema bat erabiliko du, tiratzaileari eta aurkariari arma tiro egiteko prest dagoela ohartarazteko.

**RQ-A53:** KGEak sistemaren autodiagnosia egiteko gaitasuna izango du, erabiltzaileak aginte bati sakatuz hala eskatutakoan, arma modu seguruan badago (desaktibatuta).

**RQ-A54:** Kontrolerako eta bistaratzeko sistema elektronikoak programa informatiko espezifiko bat izango du (firmwarea), baterian kokatutako transferentziako memoria elektronikoaren bitartez eguneratzeko aukera eman beharko duena.

**RQ-A55:** KGEaren sistema elektronikoak deskargaren iraupena zein ziklo elektrikoen errepikapena kontrolatuko du, subjektua benetan ezgaitu ahal izatea bermatzeko.

**RQ-A56:** Inpaktu desegokien eraginen detekzioa: kontrol-sistema elektronikoa zunden arteko inpedantzia neurtzeko gai izango da, tiroen eraginkortasuna kontrolatzeko.

**RQ-A57:** Kontaktuen arteko konexio gurutzatua, inpedantziara egokitua: bi tiro edo gehiago eginez gero, kontrol-elektronikoko sistema botatako zunden arabera definitu daitezkeen kontaktu-pareen arteko inpedantzia neurtuko du, eta haien artean deskarga elektrikoa egiteko inpedantziarik onena duten kontaktu parea detektatuko du.

SEGURTASUN-ELEMENTUAK

**RQ-A58:** KGEaren etengailuak eta aginteak hegal modukoak izango dira, edo antzekoak, laneko eskularruekin eragiteko adinako azalerakoak.

**RQ-A59:** KGEak eskuinentzako zein ezkerrentzako segurtagailu bat izango du, bi posiziokoa: modu segurua (armaren egoera: desaktibatua) eta prest (armaren egoera: aktibatua).

**RQ-A60:** KGEak laser-erakuslea eta argi teknikoa desaktibatzeko aginte bat izango du (isilpeko modua).

**RQ-A61:** Deskarga elektrikorik ez da gertatuko KGEaren kontrol-sistema elektronikoak tiroen eraginak kaltegarriak izango direla jotzen badu.

**RQ-A62:** Munizioa duten kartutxo anitzeko kargagailuak kolore ezberdinetakoak izango dira, zein zerbitzu mota egiteko diren (zerbitzua edo entrenamendua), istripua prebenitzeko bistazko segurtasun-neurri modura.

AKABERA ETA ERGONOMIA

**RQ-A64:** KGEaren armazoia beltza ez beste kolore batekoa izango da, agenteen ohiko suzko pistolen beltzaren aldean nabarmena. Horiak edo antzekoak joko dira horretarako kolore hoberentzat.

**RQ-A65:** Ergonomia orokorra: KGEak ez du erabiltzean arriskua dakarren ertzik edo bizarrik izango. Kanpoko formak eta akaberak, eta heldulekuarenek, bereziki, agenteari gailua eustea erraztu beharko diote.

**RQ-A66:** Tiro egiteko ergonomia: katuaren mugimenduak fidel-fidel jarraituko dio gailua darabilen agentearen hatzari, eta katuaren erresistentzia eta egiten duen bidea sumatu beharko dira. Katuak ez du arina eta sentikorra izan behar; aitzitik, nahita eta tinko sakatu beharko zaio, ustekabean tiro ez egiteko.

EZAUGARRI OPERATIBOAK

**RQ-A67:** KGEak erabilerraza eta intuitiboa izan beharko du.

**RQ-A68:** KGEa segurtagailuaren hegal moduko aginteari sakatuz aktibatuko eta desaktibatuko da. Gorputzeko kamera gertakariaren ikus-entzunezko grabaketa hasteko KGEa zorrotik ateratzean zein segurtagailua desaktibatzean aktibatu ahalko da.

**RQ-A69:** KGEa darabilenak argi eta garbi ikusi ahalko ditu bateriaren karga-maila, kargatutako munizio mota eta eskuragarri dauden kartutxoen kopurua.

**RQ-A70:** KGEarekin tiro egin ahalko da munizio-gailua (kartutxo anitzeko kargagailua) erabat beteta ez egon arren.

**RQ-A71:** Laser-erakuslea eta argi taktikoa automatikoki aktibatuko dira KGEa piztean.

**RQ-A72:** Tiratzaileak deskarga elektriko ezgaitzaile bat baino gehiago egiteko aukera izango du, lehendik jaurtitako zunden bidez.

## II.1.C. KARTUTXO ANITZEKO KARGAGAILUAREN BETEKIZUNAK

**RQ-C01:** Kartutxo anitzeko kargagailua KGEaren ahoan sartuko den albeolo zilindrikoko bloke bat da. Albeolo bakoitzak munizio-kartutxo bat edukiko du.

**RQ-C02:** Kartutxo anitzeko kargagailua munizio-kartutxoekin armaren ahoan sartu aurretik kargatuko da; eta kartutxoak albeoloaren atzeko aldetik kargatuko dira. Kartutxoak kartutxo anitzeko kargagailua erauzi ondoren aterako dira.

**RQ-C04:** Zerbitzurako kartutxo anitzeko kargagailuak («C1» ondasuna) eragiketetan erabiltzekoak dira. Haien badiak edo ganberak munizio taktikoarekin bateragarriak izango dira. KGEaren sistema elektronikoak haien erabilera eragiketako erabilera moduan erregistratuko ditu.

**RQ-C08:** Horniduraren adjudikaziodunak kartutxo mota guztiak eskuragarri daudela bermatuko du.

### EZAUGARRI FISIKOAK

**RQ-C09:** Munizioaren kartutxo anitzeko kargagailuaren kanpoko formak, tamainak eta pisuak KGEaren ahoarekin bateragarriak izan beharko dute, mekanikoki ondo akoplatzeko, blokeatzeko eta desblokeatzeko. Tamainaren eta masaren muga horiez gain, jarraian jasotako taulan adierazitakoa bete beharko dute.

| KARTUTXO ANITZEKO KARGAGAILUAREN TAMAINA ETA PISUA | | |
|---|---|---|
| **RQ-C10:** | Kartutxo anitzeko kargagailuaren luzera (mm) | 69 ÷ 70 |
| **RQ-C11:** | Kartutxo anitzeko kargagailuaren zabalera (mm) | 37 ÷ 38 |
| **RQ-C12:** | Kartutxo anitzeko kargagailuaren altuera (mm) | 50,5 ÷ 51,5 |
| **RQ-C13:** | Kartutxo anitzeko kargagailuaren pisua (g) | ≤ 85 |

### EZAUGARRI FUNTZIONALAK

| KARTUTXO ANITZEKO KARGAGAILUAREN EZAUGARRI FUNTZIONALAK | | |
|---|---|---|
| **RQ-C14:** | Bizitza erabilgarria (urteak) | ≥ 5 |

| | | |
|---|---|---|
| **RQ-C15:** | Erabiltzeko tenperatura (°C) | -20 ÷ 50 |
| **RQ-C16:** | Biltegiratze-tenperatura (°C) | -20 ÷ 50 |
| **RQ-C17:** | Hezetasun erlatiboa kondentsaziorik gabe (%) | > 90 |

KARTUTXO ANITZEKO KARGAGAILUAREN OSAERA

**RQ-C18:** Munizioaren kartutxo anitzeko kargagailuaren egitura material polimerikozko bloke bat da, alde batetik besterako albeolo zilindrikoak dituena, erlauntza baten modura. Albeoloen kokalekua armaren ahoko tiro egiteko konektoreenarekin bateragarria izango da. Albeoloak funtzio bikoitza du: munizio-kartutxo bat darama, eta, tiro egitean, ganberarena egiten du. Albeoloaren barruko forma dagokion munizioarenarekin bateragarria izango da.

**RQ-C19:** Albeolo-kopurua KGEaren munizio-gaitasunaren berbera izango da (RQ A29 betekizuna).

**RQ-C20:** Kartutxo anitzeko kargagailuak komunikazio-portudun gailu elektroniko bat izango du, armaren ahokoarekin konektatzen dena. Sistemak kartutxo anitzeko kargagailua identifikatuko du hura sartzean, kentzean edo tiro egitean.

KARTUTXO ANITZEKO KARGAGAILUEN AKABERA

**RQ-C21:** Kartutxo anitzeko kargagailu motak identifikatzeko kolore-kode bat egongo da, jarraian adierazitakoa edo antzekoren bat. Hornitzaileak beste kolore-koderen bat definitu ahalko du, eta, hala eginez gero, Udaltzaingoak onetsi beharko du.

| KARTUTXO ANITZEKO KARGAGAILUAK IDENTIFIKATZEKO KOLORE-KODEA ETA MUNIZIO MOTEKIKO LOTURA | | |
|---|---|---|
| Kartutxo anitzeko kargagailu mota | Kolorea | Munizioaren bandaren kodea eta kolorea |
| C1 - ZERBITZURAKOA (Live Duty) | Beltza | Munizio taktikoa – Beltza |

II.1.D. BATERIARENBETEKIZUNAK

Apartatu honetan «D» kodeko ondasunaren (KGEaren bateria) betekizunak ezartzen dira, zeina, PTA honen ondoreetarako, «A» ondasunetik (KGEa) bereizitako ondasun bat baita.

EZAUGARRI FISIKO ETA FUNTZIONALAK

**RQ-D01:** KGEaren bateria litio-ioizkoa izango da, eta berriz kargatzekoa. Honako hauek elikatzeko adinako gaitasuna izango du: potentzia-modulua, kontrol-sistema elektronikoa, bistaratze-panela eta adierazpen-elementuak, laser-erakuslea, argi taktikoa, hots bidezko alarma-sistema eta KGEaren gainerako gailu elektriko eta elektronikoak; behar bezala funtziona dezaten.

**RQ-D02:** Bateriak datuak transferitzeko memoria elektronikoa izango du. KGEaren eta gorputzeko kameraren arteko haririk gabeko komunikazio-sistema ere eduki ahalko du (agiri honetako «G» ondasuna).

**RQ-D03:** Bateria KGEarekin erabat bateragarria izango da, eta bateria kargatzeko eta datuak eta gertakariak deskargatzeko gailuarekin ere bai (PTA honetako «E» ondasuna).

**RQ-D04:** Bateriaren tamainak eta formak KGEan duen lekuarekin bateragarriak izan beharko dute.

**RQ-D05:** Bateriaren tentsio elektriko nominalak KGEarekin bateragarria izan beharko du (PTA honetako «A» ondasuna).

| EZAUGARRI FISIKOAK ETA MEKANIKOAK | | |
|---|---|---|
| **RQ-D06:** | Bateriaren pisua (g) | ≤ 100 |
| **RQ-D07:** | Erortzeari erresistentzia, entsegu-probetan (m) | ≥ 1,3 |

**RQ-D08:** KGEaren bateriak KGEak erabiltzeko giro-baldintzen betekizun berberak bete beharko ditu.

BATERIAREN OSAERA

**RQ-D09:** Bateriaren egitura material polimerikozko armazoi bat izango da, eta, haren formari esker, KGEarenean sartu ahalko da, baita bateria eta datuak kargatzeko gailuan ere.

**RQ-D10:** Bateria KGEak daukan euste- eta erauzte-gailuarekin bateragarria izango da.

**RQ-D11:** Lau elementu bereizi izango ditu: bateria elektrikoa, transferentziako memoria-zirkuituak, UTC erlojua eta gorputzeko kamerarekin bateragarria den haririk gabeko portua (PTA honetako «G» ondasuna). Bateria gainkargetatik, gehiegizko deskargetatik eta gehiegizko korronteetatik babesteko zirkuitu bat izango du.

BATERIAREN EZAUGARRI OPERATIBOAK

**RQ-D12:** Bateria KGEaren armazoian edo kargatzeko gailuan eskuz sartuko eta aterako da, inolako tresnaren beharrik gabe.

**RQ-D13:** KGEaren gertakarien datuak baterian kokatutako transferentzia-memorian grabatuko dira, automatikoki.

**RQ-D14:** Transferentzia-memoriatik datuak KGEaren bateriaren eta datuen kargagailuan deskargatzeko edo kargatzeko prozesua datuak eta gertakariak kudeatzeko sistema informatikoak kontrolatzen ditu (II.1. apartatua).

| **BATERIAREN EZAUGARRI OPERATIBOAK** | | |
|---|---|---|
| **RQ-D15:** | Bizitza erabilgarri tipikoa (karga-deskarga osoko zikloak) | ≥ 300 |
| **RQ-D16:** | KGEaren errendimendua: katu bakoitzeko tiroak | ≥ 150 |
| **RQ-D17:** | KGEaren errendimendua: arku bakoitzeko tiroak | ≥ 75 |

II.1.E. KGE-AREN BATERIA ETA DATUAK KARGATZEKO SISTEMAREN BETEKIZUNAK

PTA honen aplikazioaren ondoreetarako, ekipamendu elektroniko horri bateria eta datuak kargatzeko sistema deitu zaio. Bateria kargatzeko funtzioa merkatuan dagoen honelako edozein gailurenaren antzekoa da. Datuak deskargatzeko funtzioa KGEaren eta hura erabili den uneen datuak kudeatzekoa da.

Bateria eta datuak kargatzeko sistema modulu zentralak (core) eta kargatzeko estazioak osatuko dute. Modulu zentralak (core) kargatzeko sistemaren kontrol-unitate adimendunaren lanak egingo ditu. Honako hauek dira haren zeregin nagusiak: datuak bateriatik deskargatzea, horiek sinkronizatzea eta segurtasunez hodeira igotzea, firmwarea kudeatzea, sarearekiko konektagarritasuna, datuen ekipoko administrazioa, eta akoplatutako estazioarekin energia eta datuak banatzea. Kargatzeko estazioak bateriak sartzeko karga-badiak izango ditu; oinarri anitzeko estazioa (Multiple Bay Dock) izango da, aldi berean hainbat bateria kargatzeko eta haien gertakariak deskargatzeko gai izango dena.

Agiri honetan, modulu zentralaz eta estazioaz gain, «E» ondasunak (bateria eta datuak kargatzeko sistema) beste elementu osagarri batzuk ere barruan dituela ulertuko da; besteak beste, elikatze-iturria, Ethernet kablea, eta multzoa erabili ahal izateko beharrezkoak izan daitezkeen beste batzuk. PTA honetan, «E2» esango diogu 6 karga-badia dituen kargagailu anizkoitzari.

**RQ-E01:** Bateriaren eta datuen kargagailuak KGAren bateriarekin (PTA honetako «D» ondasuna) mekanikoki, elektrikoki eta funtzionalki bateragarria beharko du. Gainera, KGE osoaren eta gorputzeko kameraren datuak eta gertakariak kudeatzeko sistema informatikoarekin (PTA honetako «J» ondasuna) ere bateragarria izan beharko du.

## BATERIA ETA DATUAK KARGATZEKO SISTEMAREN EZAUGARRI FISIKOAK

| BATERIAREN ETA DATUEN KARGAGAILUAREN TAMAINA ETA PISUA (nukleo zentrala + estazioa) | | |
|---|---|---|
| | | E2 Anizkoitza |
| **RQ-E02:** | Luzera (mm) | ≤ 600 |
| **RQ-E03:** | Zabalera (mm) | ≤ 300 |
| **RQ-E04:** | Altuera, bateriak sartu gabe (mm) | ≤ 100 |
| **RQ-E05:** | Ekipamenduaren pisua, bateriak sartu gabe (g) | ≤ 2000 |
| **RQ-E06:** | Modulu zentralen kopurua (core) | 1 |
| **RQ-E07:** | Aldi berean kargatzeko gehieneko gaitasuna / badia kop. (aleak) | 6 |

## BATERIAREN ETA DATUEN KARGAGAILUAREN EZAUGARRI ELEKTRIKOAK

**RQ-E08:** Bateriak kargatzeko gailuak ematen duen tentsio elektriko nominalak KGEaren bateriarekin bateragarria izan beharko du.

**RQ-E09:** Kargagailuak emandako irteerako korronte elektrikoaren intentsitatearen gehieneko balio nominalak, guztira, aldi berean kargatzeko bere gaitasunarekin eta KGEaren bateriarekin bateragarria izan beharko du.

## DATUEN TRANSMISIOAREN EZAUGARRIAK

**RQ-E10:** Bateria eta datuak kargatzeko sistemaren modulu zentralak (core) datuak kargatzeko eta deskargatzeko sistemaren karga elektrikoko zirkuituak eta txartel elektronikoak ere izango ditu. Datuentzako hiru portu mota izango ditu: WAN, MGMT eta USB motakoak.

**RQ-E11:** Bateria eta datuak kargatzeko sistema fabrikatzailearen kanpoko datu-basera («J» ondasuna) konektatu ahal izango da, zuzenean Internet bitartez. Halaber konektatu ahalko da gertakariak kudeatzeko sistemaren aplikazio informatikoa instalatuta duen Udaltzaingoaren ordenagailu batera.

**RQ-E12:** Eragiketetako eta mantentze-lanetako gertakariak kanpoko datu-basera zuzenean transmitituko dira, WAN edo MGMT portuen bitartez. Kargagailuak aldizka ICMP datu-paketeak sortuko ditu, estekaren/DNSaren egoera eguneratuta mantentzeko. Gertakariaren datuak 256 biteko TLS 1,2. 1,2 estiloko protokolo seguru baten bidez edo, bestela, segurtasun-maila bereko edo handiagoko sistema batekin enkriptatuta transmitituko dira.

**RQ-E13:** Ordenagailurako konexioaren helburua KGEaren firmwarea eguneratzea, sinkronizazio-erregistroak kargatzea eta biltegiratzea eta Udaltzaingoaren ezarpenak jartzea da.

BATERIA ETA DATUAK KARGATZEKO SISTEMAREN OSAERA

**RQ-E14:** «E» kargagailu-sistemak honako elementu hauek izango ditu:

| BATERIEN ETA DATUEN KARGAGAILUAREN ELEMENTUAK | | |
|---|---|---|
| E1 | Modulu zentrala (core) | 1 |
| E2 | Karga-estazioa | 1 |
| E3 | Elikatze-iturria | 1 |
| E4 | Elikatze- eta datu-kableen multzoa | 1 |
| E5 | E1 E2rekin akoplatzeko piezen multzoa | 1 |

**RQ-E15:** Sistemak kontrol-gailu elektroniko bat izango du, bateria sartu dela automatikoki detektatzeko, eta, horrez gain, kargatzeko edo KGEaren datuak deskargatzeko edo eguneratzeko prozesuak kontrolatzeko.

**RQ-E16:** Karga-estazioak kargatzeko zirkuitua, konektore elektrikoak eta, gutxienez, USB komunikazio-portu bat izango ditu.

**RQ-E17:** Karga-estazioa bere kabuz erabili ahalko da, gertakariak kudeatzeko sistema informatikoa daukan ordenagailu batera zuzenean konektatuta. Halakoetan, ez du bateriarik kargatuko, baina erregistratutako datuak eta gertakariak transferitu ahalko ditu.

**RQ-E18:** Elikatze-iturria konpaktua eta kanpokoa izango da, salbu eta nukleo elektro-elektronikoan integratutako elikatze-iturri bat daukan aldaera bat eskaintzen bada (ez da hobekuntzatzat joko), hori ere onartuko baita.

BATERIAK KARGATZEKO SISTEMA

**RQ-E19:** Bateriak kargatzeko sistemak karga-estazioan sar daitezkeen bateria guztiak aldi berean kargatzeko gaitasuna izango du.

**RQ-E20:** Bateriak kargatzeko badia bakoitzak kargatzeko pare bat borne izango ditu, eta datuak deskargatzeko, kargatzeko edo grabatzeko portu bat ere bai, datuak kudeatzeko sistemaren parte.

**RQ-E21:** Bateriaren karga-egoeraren adierazleak izango ditu.

.

DATUAK DESKARGATZEKO ETA KUDEATZEKO SISTEMA

**RQ-E22:** Datuak kudeatzeko sistemak KGEaren bateriaren transferentziako memoria elektronikoan erregistratutako datuak deskargatzea eta grabatzea ahalbidetuko du. Sistema horren parte dira aipatutako komunikazio-portuak, karga-badietan kokatutako baterien datuak deskargatzeko

eta grabatzekoak; horrez gain, ordenagailu batekin datuak transferitzeko edo kargatzeko ere erabiltzen dira, baita KGE osoaren gertakarien datu-basearekin eta gorputzeko kamerarekin ere.

**RQ-E23:** Sistema honek, gainera, KGEaren softwarearen bertsio eguneratua bateriaren memorian deskargatzea ere kontrolatuko du.

BATERIA ETA DATUAK KARGATZEKO SISTEMAREN EZAUGARRI OPERATIBOAK

**RQ-E24:** Bateriak badietatik eskuz sartu eta atera ahalko dira, inongo tresna bereziren beharrik gabe.

**RQ-E25:** Datuak kontrolatzeko sistema KGEaren gorputzeko kameraren datuak eta gertakariak kudeatzeko ordenagailu batean instalatutako aplikazio informatikoarekin kontrolatzen dira («J» ondasuna).

| BATERIA ETA DATUAK KARGATZEKO SISTEMA ERABILTZEKO GIROKO BALDINTZAK | | |
|---|---|---|
| **RQ-E26:** | Erabiltzeko giroko tenperatura (°C) | 0 ÷ 40 |
| **RQ-E27:** | Hezetasun erlatiboa kondentsaziorik gabe (%) | > 90 |

II.1.F. ARMA-ZORROAREN BETEKIZUNAK

**RQ-F01:** KGEaren arma-zorroa gailu hori gordetzeko uniformearen osagarri bat da. Zorroa agente eskuinentzakoa izango da («F1» ondasuna).

EZAUGARRI FISIKOAK

**RQ-F02:** KGEaren zorroaren tamaina eta pisua uniformeko gerrikoan lotu eta erabiltzailearen mugimenduak ez eragozteko modukoak izango dira, naturaltasunez eta modu intuitiboan zorrotik ateratzeko bestekoak.

| ARMA-ZORROAREN LAPURRETEN KONTRAKO EZAUGARRI MEKANIKOAK | | |
|---|---|---|
| **RQ-F03:** | Uniformearen gerrikoko ainguraketaren erresistentzia (N)<br>(gerrikoarekiko perpendikular egindako indarra) | ≥ 500 |
| **RQ-F04:** | Zorroaren euste-mekanismoaren itxigailuaren erresistentzia (N)<br>(arma ateratzeko noranzkoan egindako indarra) | ≥ 500 |

**RQ-F05:** Zorroa beltza izango da.

**RQ-F06:** Zorroaren egitura urratuen eta kolpeen kontrako erresistentzia handiko eta erraz garbitzeko moduko material polimerikozko armazoi bat izango da. Barneko forma KGEaren eta haren osagaien kanpokora egokitutakoa izango da, behin zorroa itxitakoan mugimendu erlatiborik egon ez dadin. Kanpoko forma, aldiz, Udaltzaingoaren uniformeko gerrikoarekin bateragarria izango da.

**RQ-F07:** Barruan ez du metalezko elementurik izango (KGEari kalterik ez egiteko).

**RQ-F08:** Zorroak torlojurik badu, bi motatakoak izango dira, gehienez: Allen edo Phillips burukoak, eta beltzak.

**RQ-F09:** Uniformearen gerrikoari heltzeko euskarria eskuz irekitzekoa eta ixtekoa izango da (tresnarik erabili gabe). Euste-gailuak RQ F03 betekizuna bete beharko du.

**RQ-F10:** Zorroaren itxigailuak euste-gailu bat izango du, KGEa ateratzea eragozteko (lapurreten kontrako itxigailu bat, alegia). Itxigailuak RQ F04 betekizuna bete beharko du.

ARMA-ZORROAREN EZAUGARRI OPERATIBOAK

**RQ-F11:** KGEaren zorroa uniformeko eskularruekin erabili ahalko da.

**RQ-F12:** Zorroa ixtean, itxigailuak KGEaren segurtagailuaren hegalari eragingo dio, arma segurtatuta gera dadin (aurretik segurtagailua edozein egoeratan zuela ere).

**RQ-F13:** KGEa bere zorroan sartuta dagoenean, ezingo da katura heldu.

II.1.G. GORPUTZEKO KAMERA

PTA honetarako, gailu elektroniko honi KGEaren gorputzeko kamera esango diogu.

**RQ-G01:** KGEaren gorputzeko kamera gailu elektroniko bat da, eragiketako gertakariaren irudiak eta soinua aldi berean jasotzeko eta grabatzeko gai dena, eta metadatuetan erabiltzailearen geolokalizazioko koordinatuak jasotzeko ere bai, inongo agentek erabili beharrik gabe, KGEa zorrotik ateratzean edo segurtagailua kentzean automatikoki aktibatu ahalko baita. Gainera, gertakaria eta haren metadatuak hargailu bateragarri batera zuzenean bidaltzeko gai izango da. Haren masak eta tamainak ez du eragiketan dabilen agentearen mugikortasunik oztopatuko.

**RQ-G02:** Kamera bateriaren eta datuen kargagailuarekin bateragarria izango da. Kamerak gailu horretara konektatzeko USB-C USB-C kable bat izango du.

GORPUTZEKO KAMERAREN EZAUGARRI FISIKOAK

| GORPUTZEKO KAMERAREN TAMAINA ETA PISUA | | |
|---|---|---|
| **RQ-G03:** | Zabalera (mm) | ≤ 70 |
| **RQ-G04:** | Altuera (mm) | ≤ 110 |
| **RQ-G05:** | Sakonera, guztira (akoplatzeko pieza eta guzti) (mm) | ≤ 35 |
| **RQ-G06:** | Armazoiaren sakonera (akoplatzeko piezarik gabe (mm) | ≤ 30 |
| **RQ-G07:** | Pisua (g) | ≤ 230 |

BIDEOAREN EZAUGARRIAK

**RQ-G08**: Gorputzeko kamerak irudiak koloretan atzitzeko eta grabatzeko gauza izango da. Aurrealdean kamera bat izango du.

**RQ-G09:** Kamerak atzituriko bideo-seinalea bideo-formatu digitalean prozesatuko eta grabatuko da. MPEG4 (MP4) bideo-formatua erabili ahalko du, gutxienez.

| BIDEOAREN EZAUGARRIAK | | |
|---|---|---|
| **RQ-G10:** | Bideoaren gehienezko bereizmena (pixelak) | ≥ 1.440p |
| **RQ-G11:** | Bideoaren bereizmena, besterik adierazi ezean (pixelak) | 720p |
| **RQ-G12:** | Bideoaren gutxienezko bereizmena (pixelak) | ≥ 480p |
| **RQ-G13:** | Bista-eremu bertikala (°) | ≥ 60 |

| | | |
|---|---|---|
| **RQ-G14:** | Bista-eremu horizontala (°) | ≥ 120 |
| **RQ-G15:** | Bista-eremu diagonala (°) | ≥ 140 |
| **RQ-G16:** | Irudiak atzitzeko frekuentzia (fotogramak/s) | ≥ 30 |

**RQ-G17:** Argi gutxirekin ere irudiak atzitzeko gaitasuna izango du (0,1 lux), eta irudia hobetzekoa.

**RQ-G18:** Gorputzeko kamerak ardatz optikoaren hiru ardatzeko egonkorgailua izango du.

**RQ-G19:** Kamerak desfokuratutako mugimenduak automatikoki zuzenduko ditu.

**RQ-G20:** Gorputzeko kamera giza begiarenaren pareko erreprodukzio kromatikoko eta tarte dinamikoko irudiak atzitzeko gai izango da, gauez ikusteko argi infragorririk erabili gabe, argi infragorri artifizialak eragiten duen kolore-distortsiorik ez izateko.

AUDIOAREN EZAUGARRIAK

**RQ-G21:** Gorputzeko kamerak audio estereofonikoa atzituko du. Bi mikrofono estereofoniko izango ditu, gutxienez.

**RQ-G22:** Gorputzeko kamerak atzituriko bideo-seinalea bideo-formatu digitalean prozesatuko eta grabatuko da.

**RQ-G23:** Haizeak egindako zarata gutxitzeko gai izango da.

**RQ-G24:** Tiroak detektatzeko gai izango da.

POSIZIONAMENDU-SISTEMA

**RQ-G25:** Gorputzeko kamerak neurketa inertzialeko plataforma bat izango du, eta GPS sistema, azelerometroa eta girometroa izango ditu.

**RQ-G26:** Neurketa inertzialeko plataformaren bitartez neurtutako geolokalizazio-koordinatuak eragiketako gertakariaren bideoaren eta audioaren metadatuen parte izango dira.

GRABAKETAREN EZAUGARRIAK

**RQ-G27:** Gorputzeko kamerak funtzionatzeko oinarrizko hiru modu izango ditu: grabatu aurreko modua eta gertakariak grabatzekoa.

**RQ-G28:** Grabatu aurreko moduak une jakin baten aurreko zehaztutako luzerako tarte batez atzitutako bideo-seinalea grabatuko du. Denbora-tarte horren iraupena egokitu egin ahalko da.

**RQ-G29:** Gertakariak grabatzeko moduan, bideo- eta audio-seinalea eta haien metadatuak grabatuko dira, aktibatzeko unetik aurrera, grabaketa aurreko tartea barne. Aukeran, soinua grabatzeko aukera desaktibatu eta berraktibatu ahalko da.

| GERTAKARIEN GRABAKETAREN EZAUGARRIAK (AUDIODUN BIDEOA) | | |
|---|---|---|
| **RQ-G30:** | Grabaketaren aurreko gehieneko denbora (min) | ≥ 1,5 |
| **RQ-G31:** | **Gertakariak grabatzeko gehieneko denbora:** | |
| | Bideoaren bereizmenik txikienarekin Iraupena, guztira (h) | ≥ 100 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | grabatzeko gaitasuna | 1h-ko fitxategia (GB) | ≥ 0,9 |
| | Bideoaren bereizmen lehenetsiarekin gertakariak grabatzeko gaitasuna | Iraupena, guztira (h) | ≥ 50 |
| | | 1h-ko fitxategia (GB) | ≥ 1,5 |
| | Bideoaren bereizmenik handienarekin grabatzeko gaitasuna | Iraupena, guztira (h) | ≥ 10 |
| | | 1h-ko fitxategia (GB) | ≥ 8,5 |
| **RQ-G32:** | Bideoaren konprimatze-maila | | H.264, gutxienez |

**RQ-G33:** Kamerak grabatzen dituen seinaleak enkriptatzeko gaitasuna izango du.

**RQ-G34:** Sistema grabaketan ur-marka bat ezartzeko gai izango da, grabaketaren eguna, ordua eta gailua identifikatu ahal izateko.

**RQ-G35:** Kamerak irudia eta soinua grabatzeko sistema bat edukiko du, eta abian jarri aurreko 90 segundoko bufferra, gutxienez, eta, gainera, horren ezarpenak egokitu egin ahalko dira.

**RQ-G36:** Herritarrek gailua grabatzen ari dela ikusi ahal izan beharko dute (LEDen baten bidez edo beste nolabait).

**RQ-G37: Grabatutako datuak eta gertakariak Udaltzaingoak dagoeneko duen gorputzeko kameraren bateriaren eta datuen kargagailuaren bitartez deskargatuko dira; kargagailu hori ez da hornidura honen xede. Eskainitako gorputzeko kamerak erabat bateragarria izan beharko du kargagailu horrekin.**

EZAUGARRI FUNTZIONALAK

**RQ-G38:** Gorputzeko kameraren bizitza erabilgarria 5 urtekoa izango da, gutxienez.

| ERABILTZEKO GIROKO BALDINTZAK | | |
|---|---|---|
| **RQ-G39:** | Erabiltzeko giroko tenperatura (°C) | -20 ÷ 50 |
| **RQ-G40:** | Hezetasun erlatiboa kondentsaziorik gabe (%) | > 90 |

| ERORTZEAREN ETA ERAGILE KALTEGARRIEN KONTRAKO ERRESISTENTZIA | | |
|---|---|---|
| **RQ-G41:** | Erortzearen kontrako erresistentzia (m) | ≥ 1,5 |
| **RQ-G42:** | Harearen eta hautsaren kontrako babes-maila (IEC 60529 arauaren araberakoa) | IP68 edo hobea |
| **RQ-G43:** | Euriaren eta zipriztinen kontrako babes-maila (IEC 60529 arauaren araberakoa) | IPX4 edo hobea |
| **RQ-G44:** | Kresalaren kontrako erresistentzia (MIL-STD-810H) | Bete egin beharko du |

GORPUTZEKO KAMERAREN OSAERA

**RQ-G45:** Gorputzeko kameraren egitura osagai guztiak jasotzen dituen armazoi bat izango da. Sentsore, aginte, adierazle, elikatze-borne eta komunikazio-portu guztientzako adina leiho izango ditu.

**RQ-G46:** Gorputzeko kamerak ezingo du grabatutako irudiak ikusteko edo erreproduzitzeko pantailarik izan, pribatutasuna errespetatze aldera.

**RQ-G47:** Aurrealdean kameraren objektiboa, mikrofonoak, bozgorailua, grabatzeko sakagailua eta egoera-adierazleak egongo dira.

**RQ-G48:** Atzealdean ainguratze-mekanismoak egongo dira.

**RQ-G49:** Alboetan kargatzeko eta komunikazioetarako konektorea, pizteko sakagailua eta funtzioen sakagailua egongo dira.

**RQ-G50:** Kameraren kanpoko forma eta kargatzeko borneen eta komunikazio-portuaren kokapena bateriaren eta datuen kargagailuan inongo tresnarik gabe sartzeko modukoa izango da.

**RQ-G51:** Gorputzeko kameraren armazoiaren barruan berriz kargatzeko litio-ioizko bateria bat izango du.

**RQ-G52:** Gorputzeko kameraren bateriak bere osagai guztiak gutxienez 12 orduz martxan egoteko elikatzeko gaitasuna izango du.

**RQ-G53:** Gorputzeko kamera sistema elektroniko batek kontrolatuko du, eta haren parte izango dira aginte eta egoeraren adierazle guztiak. Sistemak programa informatiko espezifiko bat izango du («firmwarea»).

**RQ-G54:** Kameraren sistema elektronikoak RQ G31 betekizuna betetzeko adinako biltegiratze-gaitasuneko memoria bat izango du, eta nahikoa izango da betekizun berean adierazitako gertakari-orduak grabatzeko.

**RQ-G55:** Kameraren sistema elektronikoak ordenagailu batekin edo RQ G02 betekizunean adierazitako kargagailuarekin konektatzeko komunikazio-portu bat edukiko du.

**RQ-G56:** Kameraren sistema elektronikoak haren funtzionamendu-egoera eta bateriaren karga ikusteko argi bidezko adierazleak izango ditu.

**RQ-G57:** Sistema elektronikoak hots-seinaleak igortzeko bozgorailu bat ere edukiko du.

**RQ-G58:** Gorputzeko kameraren sistema elektronikoak bibragailu bat izango du, argi- edo hots-seinaleekin batera bibratu ahal izateko.

**RQ-G59:** Kameraren firmwarea eguneratu ahalko da. Ordenagailu batetik edo bateria kargatzeko gailutik eguneratu ahalko da, hain zuzen.

**RQ-G60:** Gorputzeko kameraren sistema elektronikoak argizko, hotsezko eta bibraziozko adierazleak desaktibatu ahalko ditu (isilpeko modua), erabiltzaileak hala nahi badu.

**RQ-G61:** Gorputzeko kamerak bere bateriaren karga-maila automatikoki detektatuko du, eta argizko adierazle baten bidez erakutsiko du.

**RQ-G62:** Gertakariak grabatzeko modua aktibatzeko agintea kameraren aurrealdeko sakagailu bat izango da. Soinuaren grabaketa desaktibatzeko eta berraktibatzeko agintea, aldiz, beste bat izango da.

**RQ-G63:** Gorputzeko kameraren sistema elektronikoa parekatutako antzeko gailuen gertakarien seinalea haririk gabe atzitzeko gai izango da. Gailuak igorritako seinaleak gutxienez 8 metroko erradioan dauden agenteek daramatzaten gorputzeko kameren grabatzeko moduak automatikoki aktibatzeko gaitasuna izan beharko du, PTA honetan zehaztutako ekipamenduan beste sentsore edo osagai gehigarririk gabe.

AKABERA ETA ERGONOMIA

**RQ-G64:** Gorputzeko kamera beltz matea izango da.

**RQ-G65:** Kameraren armazoiak kanpoan metalezko piezarik badu, gainazalaren akabera ilundua izango da, eta beltza edo antzekoa.

**RQ-G66:** Gorputzeko kamerak ez du izango arriskurik dakarren edo erabiltzea zailtzen duen ertzik edo bizarrik; eta kanpoko formak eta akaberak erraz heltzea erraztuko dute.

**RQ-G67:** Gorputzeko kameraren etengailuek eta aginteek uniformeko eskularruekin erabiltzeko adinako azalera izango dute.

GORPUTZEKO KAMERAREN EZAUGARRI OPERATIBOAK

**RQ-G68:** Kamera erraz eta era intuitiboan erabiltzeko modukoa izango da.

**RQ-G69:** Kamera pizteko sakagailu bati eraginda piztuko eta itzaliko da.

**RQ-G70:** Gertakariak grabatzeko kameraren modua automatikoki aktibatuko da, parekatuta duen KGEa (PTA honetako «A» ondasuna) zorrotik ateratzean edo aktibatzean.

**RQ-G71:** Erabiltzaileak kamera eskuz aktibatuko edo desaktibatuko du, aurrealdeko sakagailu bati eraginez.

**RQ-G72:** Erabiltzaileak gorputzeko kameraren isilpeko modua eskuz aktibatuko edo desaktibatuko du, aurrealdekoaz besteko sakagailu baten bidez.

II.1.H. GORPUTZEKO KAMERAREN EUSKARRIAREN BETEKIZUNAK

**RQ-H01:** Gorputzeko kameraren euskarria agentearen arroparen eta kameraren arteko elementu bat izango da. Agentearen arropari lotutakoan, ez da askatuko zerbitzua eman bitarteko polizia-eragiketetan.

**RQ-H02:** Euskarria uniformean finkatu ahalko da (berokian ere bai), eskuz, euskarriaz besteko inongo tresnarik edo lanabesik erabili beharrik gabe. Finkatzeko metodoa automatikoa, magnetikoa edo biak uztartzen dituen bat izan daiteke.

**RQ-H03:** Euskarriak gorputzeko kamera eskuz akoplatzeko aukera emango du, inongo tresnarik erabiltzeko beharrik gabe. Euskarria berdin desakoplatuko da. Bi gauza horiek euskarria aurrez erabiltzailearen arropara finkatuta dagoela egin ahalko dira. Behin kamera euskarrian finkatutakoan, ez da askatuko agenteak bere polizia-jarduketetan egin beharreko mugimenduengatik.

II.1. J. DATUAK ETA GERTAKARIAK KUDEATZEKO SISTEMAREN BETEKIZUNAK

**RQ-J01:** Sistema informatikoak honako elementu hauek ditu: aplikazio informatikoa («J1» kodea) eta hodeiko datu-basea («J2» kodea).

Aplikazio informatikoa («J1» kodea) administrazio eta langile baimenduek hardwarea kudeatzeko eta informazioa aztertzeko aginte-zentroa da. Haren eginkizun nagusiak erabiltzaileen eta gailuen kudeaketa, indar-erabileraren txostenak sortzea, sistemako jardueren auditoretza ahalbidetzea eta firmwarea eguneratzea dira.

Hodeiko datu-basea («J2» kodea) KGEak eta gorputzeko kamerak igorritako datu eta polizia-gertakari guztiak gordetzeko urruneko eta segurtasun handiko biltegiratze-ingurunea da.

Ondasun hauez hornitzearen kontraprestazioa dagokion erabilera-lizentziaren bitartez egingo da, zeinak honako hauek hartuko baititu, gutxienez:

**RQ-J02:** KGE osoko eta gorputzeko kamerako datuek, eragiketetako gertakariek eta mantentze-lanetako gertakariek bateragarriak izan beharko dute KGEarekin, haren munizioarekin, kartutxo anitzeko kargagailuarekin, gorputzeko kamerarekin eta bateria eta kargagailuekin (PTA honetako «A», «C», «D», «E» eta «G» kodeko ondasunak).

**RQ-J03:** Sistema informatikoak KGEa erabili izanaren honako gertakari hauek kudeatuko ditu: tiro egiteko prest eta segurtatuta izatearen egoerak, munizioa kargatzea, katuari sakatzea, arkuaren sakagailuari eragitea, eragin elektriko ezgaitzaileko deskarga, egindako tiroak, autodiagnosia eta itzaltzea. Gertakari hauek maneiatu behar dituenak, bere burua identifikatu beharko du, lehenik, ebidentzien zaintza-katea bermatze aldera.

**RQ-J04:** Sistema informatikoak KGEaren mantentze-lanetako honako gertakari hauek kudeatuko ditu, gutxienez: bateria sartzea, UTC erlojua sinkronizatzea, arma parekatzea, arma kalibratzea, firmwarea eguneratzea eta autodiagnosi-proben emaitza.

**RQ-J05:** Sistema informatikoak gorputzeko kamerak grabatutako gertakariak kudeatuko ditu. Gertakari hauek maneiatu behar dituenak, bere burua identifikatu beharko du, lehenik, ebidentzien zaintza-katea bermatze aldera.

**RQ-J06**: Sistema informatikoak gorputzeko kameraren mantentze-lanen honako gertakari hauek kudeatuko ditu: firmwarea eguneratzea eta autodiagnosi-proben emaitza.

**RQ-J07**: Sistema informatikoak KGE osoaren eta gorputzeko kameraren gailuen gertakarien datu-basea kudeatuko du.

**RQ-J08**: Sistema informatikoa formatu immaterialean emango da, hau da, Interneteko helbide bat edo antzeko baliabideren bat emango da, aplikazioa handik deskargatzeko; hala eginez gero, kontratistak deskargarako helbidea eta segurtasunez sartzeko kodea emango ditu.

**RQ-J09:** Kontratistak konpromisoa hartzen du Udaltzaingoaren Informatika Zerbitzuari lizentzia instalatzeko eta mantentzeko beharrezko informazio guztia emateko. Lizentziak 5 urtekoa izan beharko du, gutxienez, eta urtez urte ordaintzeko aukera beharko da.

APLIKAZIO INFORMATIKOA (J1)

**RQ-J10:** KGE osoaren datuak eta gertakariak kudeatzeko aplikazio informatikoak eta haren gaineko sistema informatikoak ondasun berberentzat izan beharko dute bateragarriak.

**RQ-J11:** Aplikazioak ezaugarri funtzional berberak izango ditu, eta Udaltzaingoarentzako eskuragarri dagoen kanpoko sare batean egon ahalko da, baita Udaltzaingoaren sistema informatikoko ordenagailu batean instalatu daitekeen bertsio batean ere. Udaltzaingoaren kanpoko sareko kokapena fabrikatzailearen jabetzakoa izango da, eta bera izango da hura zaintzearen arduradun. Nolanahi ere, aplikazio informatiko horretara Udaltzaingoaren sare informatikoko puntu batetik sartuko da.

**RQ-J12:** KGEaren eta gorputzeko kameraren datuak kargatzeko eta deskargatzeko eragiketak dagozkien bateria- eta datu-kargagailuen bidez egingo dira. Kargagailuaren komunikazio-portua Udaltzaingoaren sare informatikoko ordenagailu batera konektatuko da. Aktibatzeko, lizentziak kudeatzeko aplikazio bat erabiliko da.

**RQ-J13:** Aplikazio informatikoak, bere helburua betetzeko, KGEaren bateriak eta gorputzeko kamerak identifikatuko ditu, eta dagokien KGE gailuarekin parekatuko ditu.

**RQ-J14:** Kontratistak konpromisoa hartzen du Udaltzaingoaren Informatika Zerbitzuari aplikazioa instalatzeko eta mantentzeko beharrezko informazio guztia emateko.

HODEIKO DATU-BASEA (J2)

**RQ-J15:** KGEaren gertakarien datu-basea aplikazio informatiko bat izango da, PTA honen xede den KGE bakoitzaren eragiketetako gertakarien, mantentze-lanetako gertakarien eta bestelako datuen erregistroak gordeko dituen fitxategi informatiko batekin uztartua.

**RQ-J16:** Datuen eta gertakarien datu-basea Udaltzaingoaren kanpoko webgune batean egongo da, KGEa fabrikatu duen enpresak edo enpresa-taldeak segurtatu, kudeatu eta zaindutako batean. PTA honen xede den eskuratze-espedientearen barne dago datu-base horretan kontu bat kontratatzea.

**RQ-J17:** Kontratistak ziurtatu beharko du webgune horretako kontua kudeatzen duen enpresak 7/2021 Lege Organikoak, maiatzaren 26koak, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babestekoak, ezarritako guztia betetzeko prest dagoela. Bereziki, lege horren 30. artikuluak tratamenduaren arduradunarentzat ezartzen dituen betebeharrak bete ahal izan beharko ditu, eta, ondorioz, dagokion tratamendu-aginduaren kontratua sinatu ahal izan beharko du.

**RQ-J18:** Kontratistak ziurtatuko du gertakarien datu-base hori kudeatzen duen enpresa 311/2022 Errege Dekretuak, maiatzaren 3koak, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duenak, ezarritakoa betetzeko moduan egoteaz, baita errege dekretu horren 3. artikuluaren arabera tratamenduaren arduradunak ezarritako betetze-mailaren adierazpenak edo ziurtagiriak betetzeko moduan dagoela ere.

**RQ-J19:** Hornidura honetako KGEaren eta gorputzeko kameraren multzo guztiak fabrikatzaileak kudeatutako eta zaindutako datu-basean erregistratuko dira. Datu-baseak datuak eta gertakariak mugarik gabe gordeko ditu, baita ordeztutako gailuenak ere.

**RQ-J20:** Datu-baseak ez du KGEaren eta gorputzeko kameraren multzo bakoitzeko erabiltzaile-mugarik izango. Udaltzaingoak KGEaren eta gorputzeko kameraren multzo baten erabiltzaileei alta edo baja eman ahalko die, zerbitzuaren beharren arabera.

II.1. M. BETEKIZUNAK: BERMEA LUZATZEA

Agiri honen xede diren ondasunen prezioan sartutako hogeita lau (24) hilabeteko bermeaz gain, adjudikaziodunak, nahitaez eta kontratuaren prezioan barne, bermearen luzapena eman beharko du honako ondasun hauetarako: KGEa, haren bateria, KGEaren karga elektrikorako eta datuak deskargatzeko oinarria eta gorputzeko kamera (agiri honetako «A», «D», «E» eta «G» ondasunak). Bermearen luzapenak bost (5) urte iraungo du, ondasunak jasotzen diren egunetik zenbatzen hasita, gorputzeko kamerarena izan ezik («G» ondasuna); horrek hiru (3) urte iraungo du, jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.

Ikus dagozkion betekizunak II.5. (Bermea) apartatuan.

Agiri honen ondoreetarako, bermearen luzapena «M» ondasun gisa izendatuko da.

## II.2. MANTENTZEKO ERRAZTASUNA

PTA honetan mantentzeko erraztasunaren betekizunak ezartzeko, mantentze-lanetako jarduerak maila izeneko taldetan multzokatu dira, nahiz eta horrek ez duen esan nahi Udaltzaingoan halako egitura funtzional edo antolakuntzakorik dagoenik.

**RQ-Z01:** PTA honen xede diren objektuak mantentzeko KGEaren erabiltzaileari agindutako jarduerak (Lehen maila) kanpoaldea eta barnealde irisgarria garbitzea, badabilela egiaztatzea eta antzekoak izango dira.

**RQ-Z02:** PTA honen xede diren ondasunen mantentze-lanetako aldizkako jarduerak (Bigarren maila) izan daitezke bateria kargatzea, datuak eta gertakariak kudeatzea, firmwarea eguneratzea, aplikazio informatikoen lizentziak kudeatzea eta antzeko batzuk. Jarduera horiek horretarako prestakuntza berezia duten udaltzainek egingo dituzte.

**RQ-Z03:** Objektua (piezak edo multzoak) partez edo osorik desmuntatzea behar duten mantentze- edo konponketa-lanak (Hirugarren maila) fabrikatzaileak akreditatutako zerbitzu tekniko espezializatu batek egingo ditu. Kontratistak nahitaez kudeatu beharko ditu eskatzen zaizkion Hirugarren mailako mantentze-lanak, bost urteko aldian, gutxienez. Nahiz eta kontratistak kudeatutako jarduera horiek horretarako gai den beste enpresa bati agindu, haien ardura berea izango da.

**RQ-Z04:** Kontratistak eskatzen zaion laguntza teknikoa edo informazioa emateko konpromisoa hartzen du, emandako ondasunen erabilerari eta Lehen edo Bigarren mailako mantentze-lanak egiteari dagokienez.

## II.3. AGIRI TEKNIKOAK

Agiri teknikoak RQ-Z06 betekizunean zehaztutako entregatu beharreko dokumentuak izango dira. Agiri teknikoetan zein egilek edo erakundek egin duen adieraziko da, baita egite-data edo bertsioa eta Internetetik eskuratzeko bertsio elektronikoaren kokapena ere.

**RQ-Z05:** Kontratuaren xede den hornidura hain espezifikoa denez, eta eskaintzaileen kopurua asko ez murrizteko, PTA honen eskuratze-espedienterako aurkeztu beharreko agiri teknikoak ingelesez soilik idatzita egotea onartuko da.

**RQ-Z06:** PTA honen xede diren agiri teknikoak honako hauek izango dira, gutxienez:

- Erabiltzeko eskuliburua, maneiatzeko argibideak eta segurtasun-gomendioak barne.
- Mantentze-lanetarako eskuliburua, honako hauek jasoko dituena, gutxienez: mantentze-lanetarako behar diren eragiketak, matxura edo disfuntzio ohikoenak, eta horiek konpontzeko modua.
- Instalatzeko edo konfiguratzeko eskuliburua (hala badagokio).
- Ordezko piezen katalogoa.
- Software lizentziak (hala badagokio); serie-zenbakia, aktibatzeko gakoa, erabiltzaile-izena, erabiltzaile baimenduen kopurua, baimentze-kodea eta abar barne.

**RQ-Z07:** Ziurtagiri bat erantsiko da, KGEak igortzen dituen deskarga elektrikoen ezaugarriak aurkariarentzako hilkortasun txikikoak direla dioena, bihotzeko patologiak edo taupada-markagailuak badituzte ere. (RQ A03 betekizunaren justifikazioa).

## II.4. MARKAK ETA IDENTIFIKAZIOA

**RQ-Z10:** KGEek, gorputzeko kamerek eta haien kargagailuek marka ezabaezin, sakon eta erraz ikustekoak izan beharko dituzte, erabilera intentsiboa edo urratzea jasango dutenak. Markek honako hauek izan beharko dituzte, gutxienez: fabrikatzailearen izena, fabrikazio-herrialdea edo lekua eta bakoitzaren serie-zenbakia. Identifikazio hori armaren funtsezko osagaietan agertuko da, zalantzarik gabe identifikatu ahal izateko, eta armak kontrolatzeko poliziaren datu-baseetan erraz erregistratzeko.

**RQ-Z11:** Agiri honetan jasotako produktu guztiek CE ziurtagiria izango dute.

## II.5. BERMEA

**RQ-Z12:** Hornitutako material guztiek hogeita lau (24) hilabeteko gutxieneko bermea izango dute, jasotzen diren egunetik zenbatzen hasita. Berme horrek fabrikazio eta/edo funtzionamendu akats oro estaliko du, eta hornitzaileak bere kontura konpondu beharko ditu bermealdian agertzen den edozein akats, eta, gainera, pieza akastun edo erabilezinak ordeztu beharko ditu. Bere kontura izango dira eskulana zein garraioa.

**RQ-Z13: Adjudikaziodunak, nahitaez eta kontratuaren prezioan barne, bermearen luzapena (PTA honetako «M» ondasuna) eman beharko du, KGEa, bere bateria, KGEaren karga elektrikoko eta datuak deskargatzeko oinarria eta gorputzeko kamera estaliko dituena (agiri honetako «A», «D», «E» eta «G» ondasunak), fabrikazioko edozein akatsen edo akats ezkuturen kontra, bost (5) urtez (60 hilabete), ekipamenduak jasotzen diren egunetik zenbatzen hasita, gorputzeko kamerarena izan ezik («G» ondasuna); horren luzapenak hiru (3) urte (36 hilabete) iraungo du, jasotzen den egunetik zenbatzen hasita. Estaldura horren barruan elementu akastunak konpontzea edo ordeztea egongo da, entitate kontratatzailearentzako kostu gehigarririk ekarri gabe, baita firmwarea etengabe eguneratzea eta horri lotutako laguntza teknikoa ere. Halaber, ebidentziak kudeatzeko eta hodeiko biltegiratze seguruko lizentzia baliozkoa eta erabat funtzionala izango da bost (5) urtez (60 hilabete), ekipamenduak jasotzen diren egunetik zenbatzen hasita. Gainera, segurtasun-ekosistemaren bateragarritasun teknikoa eta osotasuna bermatu beharko da haren bizi-ziklo guztian.**

## III. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Enprea adjudikaziodunak, datuen tratamenduaren eragilea den heinean, neurri teknikoak zein antolakuntzazkoak aplikatzeko berme nahikoak eskaini behar ditu, tratamendua bat etor dadin 2016/679 Erregelamenduaren eskakizunekin (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra “DBEO”), Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoarekin, eta 7/2021 Lege Organikoarekin, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalakbabesteari buruzkoa.

Adjudikaziodunak egitekoa den tratamendua arautzeko sinatuko den kontratua bat dator DBEOren 28.3 artikuluan zehaztutako xedapenekin.

Eranskin moduan bideratu den “Datu Pertsonalen Tratamendurako Enkargua” izeneko agiria I.eranskin gisa txertatu da, eta lizitazio honetan adjudikaziodunak hori bete eta sinatu beharko du

## IV. KONFIDENTZIALTASUNA

Enpresa adjudikaziodun berariaz behartuta dago kontratua betetzean ezagutu dezakeen edozein datu gordetzera, konfidentzialtasun eta erreserba osoz, batez ere datu pertsonalak. Datu horiek ezin izango ditu kopiatu edo plegu honetan agertzen ez den beste helburu baterako erabili, eta ezin izango dute beste batzuei informazioa helarazi, ezta kontserbatzeko ere.

Betebehar horri bost urtez mantenduko da, informazio hori jakiten denetik zenbatzen hasita, SPKLren 133.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Dokumentu honen II. Eranskinean zehazten dirakonfidentzialtasun-klausulak. Lizitazio honetan, enpresak bete eta sinatu egin beharko du.

## V. SEGURTASUN ESKEMA NAZIONALA

Kontuan hartuta Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretua betetzeko betebeharra sektore publiko osoari eragiten diola eta, horrekin batera, honek sektore pribatuko entitateen informazio sistemei ere, hauek, dagokion araudiari jarraituz eta kontratu harreman baten bidez, sektore publikoko erakundeei zerbitzuak ematen dizkietenean edo soluzioak ematen dizkietenean beren eskumen eta ahal administratiboak gauzatzeko, enpresa lizitatzaileak

dagokion 311/2022 Errege Dekretuarekiko Adostasun Adierazpena aurkezteko moduan egon behar du, OINARRIZKO kategoriako sistemak direnean, edo 311/2022 Errege Dekretuarekiko Adostasun Ziurtagiria, kategoria ERTAINeko edo HANDIko sistemak direnean.

Aurretik xedatutakoa eta lizitazioaren xede diren zerbitzuek izan ditzaketen arriskuen analisia oinarri hartuta, beharrezkotzat jotzen da 311/2022 Errege Dekretuarekiko adostasun erakusten duen ziurtagiria, Segurtasun Eskema Nazionaleko ERTAINEKO kategorian.

Indarrean dagoen adostasuna kontratuaren bizi ziklo osoan mantendu behar da. Adjudikaziodunak dagokion adostasuna-ziurtagiria galtzen badu edo aldi baterako kendu bazaio, berehala eta bidegabeko atzerapenik gabe jakinarazi beharko dio ERAKUNDE KONTRATATZAILEARI, eta hark kontuan hartu beharko du izaera horrek kontratuan duen eragina. Era berean, ziurtagiria eguneratu dela jakinaraziko du, 311/2022 Errege Dekretuaren xedapen iragankor bakarreko epeen eta betekizunen arabera.

Enpresa lizitatzaileak bere gain hartzen du Segurtasun Eskema Nazionala osorik betetzeko betebeharra, eta haren zerbitzu-emaileek eta hornitzaileek maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuarekin bat etorri behar dute, lizitatzailearen baldintza berberetan, azpikontratatutako lanak egiteko zerbitzuak ematen edo irtenbideak ematen dituzten neurrian.

Adjudikaziodunak harremanetarako puntu edo pertsona (POC) gisa izendatutako pertsonaren harremanetarako datuak jakinarazi beharko ditu, 311/2022 Errege Dekretuaren 13.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

SEGURTASUN-BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

Segurtasun Eskema Nazionalak eskatutako neurriak betetzeaz gain, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede diren grabazioen eta gainerako informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna, benetakotasuna, trazabilitatea eta eskuragarritasuna bermatu beharko ditu. Bereziki, honako segurtsun-neurri hauek bermatu behako ditu, gutxienez:

• **Informazioaren konfidentzialtasuna,** grabazioak eta lotutako gainerako informazioa berariaz baimendutako pertsonek soilik eskuratu ditzaketela bermatuz.

• **Transitoan eta biltegiratuta dagoen informazioa zifratzea,** grabazioak eta gainerako informazioa babesteko zifratze mekanismo egokiak aplikatuz haiek transmititzean, biltegiratzean eta tratatzean.

• **Autentifikazio sendoa eta sarbideen kontrola,** grabazioetara eta horiek kudeatzen dituzten sistemetara baimendutako pertsonak soilik sartzea ahalbidetzen duten mekanismoen bidez.

• Grabazioetan eta gainerako informazioan egindako sarbideen, kontsulten, deskargen eta aldaketen **trazabilitatea,** gutxienez, pertsona edo erabiltzailea, data eta ordua eta egindako eragiketa identifikatu ahal izateko.

• **Ebidentzien osotasuna babestea**, bermatuta grabazioak ezin direla baimenik gabe aldatu, manipulatu edo ezabatu, eta, beharrezkoa denean, zaintza-katea zainduta.

• Jarduera-erregistroak **kontserbatzea,** grabazioen gainean egindako eragiketen trazabilitatea bermatzeko eta auditoretza egiteko behar diren erregistroak mantenduz,

• **Segurtasun-gorabeherak kudeatzea**, grabazioen eta horiek kudeatzen dituzten sistemen konfidentzialtasunari, osotasunari edo erabilgarritasunari eragin diezaioketen gorabeherak detektatzeko, jakinarazteko, kudeatzeko eta konpontzeko prozedurak edukita.

• **Babeskopiak, grabazioen eta gainerako informazioaren eskuragarritasuna** eta berreksurapena bermatzeko mekanismoegokiak ezarriz, sistemaren balizko galeren, aldaketen, gorabeheren edo akatsen aurrean.

• **Datuen eta zerbitzarien kokapena**. Enpresa adjudikaziodunak datuen kokapenaren eta datuak biltegiratzeko eta tratatzeko erabilitako azpiegituren eta zerbitzarien berri eman beharko du, bai eta kontratua gauzatzean gertatzen den edozein aldaketaren berri ere, informazioa eguneratuta mantenduz.

• **Tratamenduaren azpieragileak kontrolatzea,** zerbitzua ematean esku hartzen duen edozein azpieragilek kontratuan eta aplikatu beharreko araudian ezarritako segurtasun-betebeharrak eta datuak babesteko betebeharrak betetzen dituela bermatuz.

• **Kontratua amaitzean, informazioa itzultzea eta ezabatzea**, grabaketak eta gainerako informazioa udalari itzuliko zaizkiola bermatuz, eta, dagokion kontserbazio-epea amaitu ondoren, enpresa adjudikaziodunaren eta azpieragileen sistemetatik benetan ezabatuko dela bermatuz, kontserbatzeko legezko betebeharra dagoenean izan ezik.

Azken batean, enpresa adjudikaziodunak behar diren prozedurak, mekanismoak eta kontrolak izan beharko ditu, kontratua indarrean dagoen bitartean baldintza horiek betetzen direla egiaztatu ahal izateko

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Udaltzaingoa / Guardia Municipal

Morlans biribilgunea, 1 - 20009 Donostia / San Sebastián
Tel. 943481315 | www.donostia.eus

## I. ERANSKINA: INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA. DATU-TRATAMENDURAKO ENKARGUA

### I. DATU PERTSONALEN BABESA

1.- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrarekin bat (2016/679 EU), kontratu honen esleipendun den enpresa izango da tratamenduaren ERAGILEA, eta, hala den aldetik, kontratua gauzatzean eskuratzen dituen datu pertsonalak tratatu beharko ditu. DONOSTIAKO UDALA da datu horien tratamenduaren ARDURADUNA, unean-unean indarrean dagoen datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat. Betebehar hori indarrean egongo da zerbitzu kontratua hasten denetik amaitzen den egunera arte.

2.- Enpresa esleipendunak kontratuko xedeak betetzeko soilik tratatuko ditu datu pertsonalak, DONOSTIAKO UDALAK emandako ohar edo jarraibideak betez betiere. Gainera, jarraibide horiek xehekiago jaso ahal izango dira esleipenaren ondorioz sinatuko den tratamendua eskatzeko kontratuan, tratamenduaren ezaugarrien arabera.

3.- Jarduera hauek jasoko dira ERAGILEAK datu pertsonalei emango dien tratamenduan -baldintza agiriko preskripzio teknikoen arabera-, enpresa esleipendunak egiten duen proposamen teknikoan eta sinatuko den zerbitzu kontratuan:

| | | | |
|---|---|---|---|
| x | Sarbidea | x | Kontsulta |
| x | Bilketa | | Hedapena |
| x | Erregistroa | | Digitalizazioa |
| x | Antolakuntza | | Erabilera |
| | Egituraketa | | Erkaketa |
| | Aldaketak | | Mugaketa |
| x | Kontserbazioa | x | Ezabapena |
| x | Biltegiratzea | x | Suntsiketa |
| x | Ateratzea | | Bestelakoak (interkonexioak, migrazioa…) |

4.- Hauek dira kontratuko zereginak gauzatu ahal izateko datu pertsonalen tratamenduaren ARDURADUNAK datu pertsonalen tratamenduaren ERAGILEAREN esku jarri dituen datuak, eta azken horrek tratatu dituenak:

**Identifikazio datuak**

| | |
|---|---|
| | Izen-abizenak |
| | Identifikazio zenbakia (NAN, IFZ, egoiliar zenbakia) |
| | Sinadura elektronikoa edo errubrika |
| | Telefonoa |
| | Posta helbidea |
| | Posta elektronikoa |
| | Osasun txartela |
| | Gizarte Segurantzako edo mutuako zenbakia |
| x | Irudia-ahotsa |
| x | Beste batzuk |

**Kategoria berezietako datuak**

| | |
|---|---|
| | Osasuna |
| | Sindikatuko afiliazioa |
| | Datu biometrikoak (aztarnak eta marka fisikoak) |
| | Bizitza sexuala/sexu orientazioa |
| | Jatorrizko arraza edo etnia |
| | Iritzi politikoak |

| | |
|---|---|
| | Datu genetikoak |
| | Uste erlijioso edo filosofikoak |
| x | Beste batzuk |

**Arau hausteen datuak**

| | |
|---|---|
| x | Arau-hauste penalak |
| x | Arau-hauste administratiboak |

**Beste datu batzuk**

| | |
|---|---|
| | Ezaugarri pertsonal eta sozialak |
| | Akademikoak eta profesionalak |
| | Enplegua eta lanpostuak |
| | Errendimendu profesionala |
| | Ondare kaudimena eta kreditua |
| | Ekonomiko-finantzarioak |
| | Transakzioak |
| x | IPa, kokagunea edo mugimenduak |
| | Soslaiaren ebaluazioa (nortasuna eta portaera) |
| x | Pertsona horren ezaugarri fisikoekin, fisiologikoekin, genetikoekin, psikikoekin, ekonomikoekin, kulturalekin edo sozialekin lotutako beste datu batzuk |

5.- ERAGILEAK interesdunen kategoria hauetan oinarrituz tratatuko ditu datu pertsonalak: aseguruak babestutakoak.

6.- Interesdunek tratamenduaren ERAGILEARI zuzenean eman badizkiote kontratu hau gauzatzeko datu pertsonalak, hark jakinaren gainean jarri beharko ditu, ARDURADUNAREN jarraibideei jarraikiz. Edonola ere, tratamenduaren ERAGILEAK kontratua behar bezala gauzatzeko behar-beharrezkoak diren datu pertsonalak baizik ezingo dizkie eskatu interesdunei.

7.- Enpresa esleipendunak modu automatizatuan edo ez-automatizatuan trata ditzake tratatu beharreko datu pertsonalak. Baliabide hauek erabil ditzake tratamendurako:

| | |
|---|---|
| | Fisikoak |
| | Informatikoak |
| x | Mistoak |

8.- Enpresa esleipendunak ezingo dio inori komunikatu, zabaldu, laga edo jakinarazi kontratua gauzatzean eskuratzen duen datu pertsonalik.

Enpresa esleipendunak beste hirugarren baten beharra badu zerbitzua emateko eta hark datu pertsonaletara sartu behar badu horretarako, DONOSTIAKO UDALAK azpikontratazioa baimendu beharko du, idatziz. Horretarako, zer zerbitzu azpikontratatu nahi diren adierazi beharko da, eta argi eta garbi identifikatu beharko dira enpresa azpikontratista eta harekin harremanetan jartzeko datuak. Enpresa azpikontratatua tratamenduaren eragileordea izango da, eta baldintza agiri honetan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu. Enpresa esleipendunak eta azpikontratatuak tratamenduaren enkarguaren ondorioz zer kontratu betebehar izango diren sinatu beharko dute. Eragileordeak bere betebeharrak betetzen ez baditu, enpresa esleipendunak erantzungo du tratamenduaren ARDURADUNAREN aurrean, eragileordearen betebeharrak betetzeari dagokionez.

9. Enpresa esleipendunak isilpean gorde beharko ditu lizitazio honen xede den zerbitzu kontratua ematen hasi zenetik jakin dituen nahiz eskura izan dituen, gaur egun dituen edo etorkizunean izan ditzakeen datu pertsonal guztiak. Era berean, bermatu beharko du enpresatik kanpoko inork ez duela datu pertsonal horietara iristeko aukerarik, are DONOSTIAKO UDALARI eman beharreko zerbitzuak amaitu ostean ere.

Ildo horretatik, datu pertsonalak tratatzeko baimena duten guztiek datuak isilpean gordetzeko konpromisoa hartu beharko dute, DBEOko 5.1.f. f) artikuluan zehazten den moduan, eta enpresa esleipendunak bermatu beharko du pertsona horiek konpromiso hori hartzen dutela. Horretarako, enpresa esleipendunak bere gain hartzen du datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonei gai horri buruzko prestakuntza emateko betebeharra.

10. Tratamenduaren ERAGILEAK ezingo ditu bidali datuak Europar Batasunaren esparrutik kanpoko herrialdeetara. Datuak DBEOaren aplikazio esparrutik kanpoko herrialdeetan biltegiratzeari ere eragiten dio debeku horrek.
Tratamenduaren ERAGILEAK beste herrialderen batera edo nazioarteko erakunderen batera bidali behar izanez gero datu pertsonalak, aplikagarri zaion Europar Batasuneko edo estatu kideren bateko zuzenbidearen arabera, salbu eta legezko debekuren bat edo agintari eskudunak jakinarazitako debekuren bat dagoenean, tratamenduaren ARDURADUNAREN idatzizko baimena jaso beharko du lehenago, eta beharrezko bermeei buruzko informazioa eman beharko dio horretarako. Nazioarteko bidalketa kontrol agintaritzaren berariazko baimenaren mende baldin badago, tratamenduaren ERAGILEAK ez du bidalketa egingo tratamenduaren ARDURADUNAK baimen hori baduela jakinarazi artean.

11.- Enpresa esleipendunak segurtasun neurri teknikoak eta antolaketakoak ezarri eta hartu behar ditu, arriskuaren arabera behar den segurtasuna bermatzeko. Segurtasun maila egokia ote den ebaluatzeko, datuen tratamenduak eragindako arriskuak hartuko dira kontuan; zehazki, beste era batera bidalitako, mantendutako edo tratatutako datu pertsonalak nahi gabe edo legez kontra suntsitzeak, galtzeak edo aldatzeak eragindako arriskuak nahiz datu horiek baimenik gabe jakinarazteak edo datu horietara baimenik gabe sartzeak eragindako arriskuak. Neurri tekniko eta antolaketako hauek hartu beharko ditu:

A. Jardueren erregistroa: Tratamenduaren ERAGILEAK tratamenduaren ARDURADUNAREN esku jarri beharko du, hala eskatzen zaionean, DBEOko 30. artikuluko Tratamendu Jardueren Erregistroa. Erregistro hori idatzizkoa izango da, formatu elektronikoa eduki ahal izango du, eta honako hauek jasoko ditu:

- ERAGILEAREN izena eta harremanetarako datuak, bai eta eragilearen gaineko arduradun bakoitzarenak ere, eta, halaber, halakorik badago, datuak babesteko ordezkariarenak.
- Tratamenduaren helburua.
- ARDURADUN bakoitzaren kontura egindako tratamenduen kategoriak.
- Halakorik badago, beste herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera egindako datu pertsonalen transferentziak, beste herrialde edo nazioarteko erakunde horren identifikazioa barne, eta, 49.1. artikuluko bigarren paragrafoko transferentzien kasuan, berme egokiei buruzko dokumentazioa.
- Ahal bada, 32.1 artikuluan aipatutako segurtasunari buruzko neurri tekniko eta antolakuntzakoen deskribapen orokorra.

B. Egin beharreko eginbideen artean, tratamenduaren ARDURADUNAK Merkataritza Erregistroan aurkeztutako urteko kontuak, zerga kuotak ordaindu izanaren ziurtagiriak eta langileen Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu izanaren ziurtagiriak eskatu ahal izango dizkio ERAGILEARI, edo datu horiek kontsultatzeko baimena eman diezaiola ARDURADUNARI.

C. Antolaketa neurriei dagokienez, DBEOko 37. artikuluak hala eskatzen duenean, tratamenduen ERAGILEAK datuak babesteko ordezkaria izendatu beharko du. Era berean, informazioaren segurtasunerako arduradun batek bideratuko ditu segurtasunari lotuta hautemandako gertaerak, eta tratamenduaren ARDURADUNA jakinaren gainean jarriko du, kontratu honetan ezarritako prozedurari jarraituz. Datuak babesteko ordezkari bat izendatzeko obligaziorik ez dagoenean, kontratu honetan ezarritako prozedurari jarraituz, beste langile bat izendatu beharko da, besteak beste, interesdunen erreklamazioak bideratzeko.

12.- Tratamenduaren ERAGILEAK bere obligazio guztiak betetzen dituela frogatzeko beharrezko informazio guztia gorde, eta tratamenduaren ARDURADUNAREN esku jarriko du. Gainera, konpromisoa hartzen du jarduera hauek eginez hari laguntzeko, beste batzuei eragozpenik sortu gabe:

- Datu pertsonalen tratamenduaren arriskuei buruzko azterketa egingo du, eta hala dagokionean, eraginari buruzko ebaluazioa.
- Azkar erantzungo die datu pertsonalak babesteari buruz interesdunek dituzten eskubideei. Tratamenduaren ERAGILEAK datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, kontra egiteko, mugatzeko, aldatzeko eta banako erabakietan oinarritua ez izateko duen eskubideari buruzko eskaeraren bat jasotzen badu interesdun batengandik, ARDURADUNARI jakinarazi beharko dio eskaera jaso eta 24 ordu pasa baino lehen, eskaerari erantzun egokia emateko garrantzitsua izan daitekeen informazioarekin batera.
- Segurtasun arrakalak jakinaraziko ditu, kontratu honetan ezarritako prozedurari jarraituz.
- Tratamenduaren ARDURADUNAREN esku jarriko du kontratu honetan hitzartutako obligazioak betetzen direla frogatzeko informazio guztia, bai eta ARDURADUNAK edo hark izendatutako beste norbaitek auditoretzak egin ahal izateko eta auditoretzak egiten laguntzeko informazioa ere, ikuskaritzak barne.

13.- Tratamenduaren ERAGILEAK ahalik eta eperik laburrenean jakinarazi beharko ditu eskura dituen datu pertsonalei eragiten dieten segurtasun urraketak, gertaeraren dokumentazio eta jakinarazpenerako garrantzitsua den informazio guztia emanez, okerreko atzerapenik gabe eta gertaera izan denetik 12 ordu igaro baino lehen. Gertaera zuzenean jakinaraziko zaio Donostiako Udaleko segurtasun arduradunari.

Tratamenduaren ERAGILEAK tratamenduaren ARDURADUNARI lagunduko dio, Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazteko betebeharra gauzatzeko beharrezko informazio guztia emanez nahiz hark eskatutako beste edozer emanez. Tratamenduaren ERAGILEAK honako informazio hau jakinarazi beharko du, gutxienez:

- Datu pertsonalen segurtasunari lotutako gertaeren azalpena, ondorioen balorazioa, larritasuna eta interesdunei eragindako arriskuen azalpena.
- Segurtasuna nola urratu den, zenbat kaltetu izan diren, zein izan diren segurtasun arrakala horren ondorioz erasandako datuen eta erregistroen kategoriak eta formatua (papera edo elektronikoa).
- Segurtasuna urratu dela hauteman bada, tratamenduaren ERAGILEAK zer neurri hartu edo proposatu dituen sortutako kalteak arintzeko edo, hala dagokionean, kaltetuentzat izan daitezkeen arriskuak edo eragin kaltegarriak arintzeko.

14.- Tratamenduaren ARDURADUNAK hitzartutakoak betetzen direla egiaztatzeko jarduerak egiteko eskatu ahal izango dio ERAGILEARI, eta, beharrezkoa denean, neurri zuzentzaileak hartzeko, betiere tratamenduaren ARDURADUNAK ezarritako baldintzen arabera. Kostuak enpresa esleipendunak hartu beharko ditu bere gain.

15.- Enpresa esleipendunak eman beharreko zerbitzuetarako ez baldin badago datu pertsonaletara sartu beharrik baina beharrezkoa baldin bada euskarri informatizatuak edo datu pertsonalak babesteko araudiaren mendeko informazio pertsonala duten dokumentuak dauden azpiegituretara sartzea, enpresa derrigortuta dago eskura edo iristeko moduan dituen datu horien inolako erabilera edo tratamendurik ez egitera. Bera egingo da baldintza hori ez betetzeak izan ditzakeen ondorioen eta arau-hausteen erantzule.

16.- Datuak babesteari buruzko araudia urratzen bada kontratuaren indarraldian, enpresa esleipendunak erantzungo die arau-hauste horiei, eta kontratua betetzetik datozen nahiz datuak babesteko araudiak ezarritako betebehar eta obligaziotik datozen erantzukizun guztietatik salbuetsiko du DONOSTIAKO UDALA, idatziz.

17.- Enpresa esleipendunak, tratamenduaren ERAGILE izaera duenez, tratamenduaren ARDURADUN izaera duen Donostiako Udalaren izenean eskainiko die arreta interesdunek beren eskubideak betetzeari lotuta egindako eskaerei, eta erantzun egingo die eskaera horiei. Kasu horretan, aurkeztutako eskaeren eta emandako erantzunen berri emango dio ERAGILEAK DONOSTIAKO UDALEKO datu pertsonalak babesteko ordezkariari.

18.- Tratamenduaren ERAGILEAK kontratu hau indarrean dagoen bitartean gordeko ditu kontratu honi dagozkion datuak.
Behin kontratua amaitutakoan, enpresa esleipendunak tratatutako datu pertsonalak itzuli beharko dizkio tratamenduaren ARDURADUNARI, erabilitako formatua edozein dela ere. Hala ere, datu horien kopia bat gorde ahal izango du, behar bezala blokeatuta, kontratu hau gauzatzetik eratorritako balizko erantzukizunei aurre egiteko.
Tratamenduaren ARDURADUNAK bidalitako euskarri berean itzuli beharko dira datuak; ondoren, tratatu diren ordenagailutik ezabatu beharko dira, eta paper formatuan dauden dokumentuak modu seguruan suntsitu beharko dira.

| **II_ERANSKINA.**<br>**KONFIDENTZIALTASUNA:** | **ANEXO_II**<br>**CONFIDENCIALIDAD:** |
|---|---|
| Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Lege 35.1 8 artikuluaren M letrak kontratistari ezarri beharreko konfidentzialtasun betebeharraren hedadura objektiboa eta denborazkoa zehazten du. Beraz, esleipenduna behartuta dago konfidentzialtasun eta sekretu osoa izatera kontratua gauzatzean erabilitako informazioari dagokionez. Bost urteko iraupena izango du betebehar horrek, informazio horren berri izaten denetik hasita, salbu eta agirietan edo kontratuan epe luzeagoa ezartzen badute. | De conformidad con lo establecido en el artículo 35.1 letra M de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, se determina la extensión objetiva y temporal del deber de confidencialidad impuesto al contratista. Por tanto, el adjudicatario estará obligado a mantener la plena confidencialidad y secreto, con respecto a la información manejada durante la ejecución del contrato. Esta obligación tendrá una duración cinco años desde el conocimiento de esa información, salvo que los pliegos o el contrato, se haya determinado un plazo mayor. |
| Ondorio guztietarako, kontratua gauzatzean esleipendunak ezagutu ditzakeen “erakunde kontratatzaileari buruzko informazio eta dokumentazio guztia, bai eta barne erabilera, praktika eta prozedura onak” daude horren barruan. Entitateak ez dio esleipendunari inolako eskubiderik ematen bere informazio sistemara sartzeagatik. Ondorio guztietarako, kontratistak zaindu egingo du kontratua gauzatzeko garaian irits dakiokeen informazioaren konfidentzialtasuna, agirietan edo kontratuan informazio horri halako izaera eman baldin badiote, edo duen izaeragatik beragatik informazio konfidentziala baldin bada. | Se considera a todos los efectos, “toda la información y documentación relativa a la entidad contratante, así como los buenos usos, prácticas y procedimientos internos”, que pudiera conocer el adjudicatario con motivo de la ejecución del contrato. La entidad no otorga derecho alguno al adjudicatario, por el acceso a su sistema de información. A todos los efectos, se le asigna por defecto el carácter confidencial de aquella información a la que tenga acceso con ocasión de la ejecución del contrato, que se le hubiese dado el referido carácter en los pliegos o en el contrato, o que por su propia naturaleza deba ser tratada como tal. |
| Esleipendunak konpromisoa hartzen du erakunde kontratatzailearen titulartasuneko informazioa ez zabaltzeko, ez lagatzeko edo agerian ez jartzeko, erakundearen berariazko eta aurretiko baimenik gabe. Era berean, esleipendunak ezingo du erabili zerbitzuak ematen ari zela ezagututako edo lortutako informazioa edo dokumentazioa, kontratua gauzatzearen berezkoak ez diren xedeetarako. | La adjudicataria se compromete a no divulgar, no ceder o exponer la información titularidad de la entidad contratante, sin su previo consentimiento expreso y previo. Asimismo, la adjudicataria deberá abstenerse de emplear la documentación y/o información conocida o facilitada durante la ejecución del contrato, para fines ajenos a los propios de la ejecución del contrato. |
| Kontratuak ez badu entitate kontratatzailearen informazio sistemarako sarbiderik behar, baina instalazioetara sartzea baldin badakar, esleipendunak konpromisoa hartzen du instalazioetara sartzeagatik ezarian ezagut lezakeen informazioa konfidentzialtasun osoz gordetzeko. | Cuando el contrato no requiera el acceso al sistema de información de la entidad contratante, pero si suponga el acceso a las instalaciones, la adjudicataria se compromete a mantener plena confidencialidad de la información que pudiera conocerse de manera accidental por los accesos a las instalaciones. |
| Esleipendunak hitzematen du konfidentzialtasun hitzarmenak sinatuko dituela kontratua betetzera atxikitako langileekin, eta sentsibilizazio eta prestakuntza etengabea emango dituela. | La adjudicataria se compromete a formalizar acuerdos de confidencialidad con el personal que, adscrita a la ejecución del contrato, y mantener una sensibilización y formación constante. |
| Aurkeztutako informazioak datu pertsonalak biltzen dituenean beharrezkoa izango da, aurrekoarekin batera, indarreko arauek datuak babesteari buruz xedaturikoak kontuan hartzea. Kontratazioak kontratistari datu pertsonalak eskuratzea badakarkio eta datu horien tratamenduaren erantzulea kontratugilea bada, kontratista hartuko da tratamenduaren arduraduntzat, eta horretarako sinatu beharko duen datuen tratamendurako enkarguak jasotako klausulak bete beharko ditu. | Cuando la información presentada incluya datos personales, será necesario considerar, además, las disposiciones en relación a Protección de Datos, en la normativa vigente. Cuando la contratación implique el acceso del contratista a datos de carácter personal y el responsable del tratamiento de los mismos sea el contratante, el contratista tendrá la consideración de responsable del tratamiento, debiendo cumplir las cláusulas contenidas en el encargo de tratamiento de datos que a tal efecto deberá suscribir. |
| Horrez gainera, (EB) 2016/679 Erregelamenduko 5.1.f artikuluan aipatzen den konfidentzialtasun betebeharra konplitu beharko dute kontratazio prozesuko fase guztietan parte hartzen dutenek. | Todas las personas que intervengan en cualquier fase del proceso de contratación, estarán sujetas al deber de confidencialidad al que se refiere el artículo 5.1.f) del Reglamento (UE) 2016/679. |
| Esleipendunaren sinadura:<br><br>Izena:<br>Ardura:<br>Enpresa: | Firma del adjudicatario:<br><br>Nombre:<br>Cargo:<br>Empresa: |

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Udaltzaingoa / Guardia Municipal

Morlans biribilgunea, 1 - 20009 Donostia / San Sebastián
Tel. 943481315 | www.donostia.eus

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Olatz Yarza Garagorri (17/11/2026 09:29 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : MFQ2-5HK9-VZRZ-J6HV